

Dimatik Manilara, Argentina eta Txinan barna Aita Soloeta-Dima (1881-1964)

Iñaki Sarriugarte Irigoien

sarriarmen@outlook.com

Abstract

Capuchin Friar Soloeta-Dima was born in Dima, Biskay, in 1881, and died in the Philippines in 1964. After finishing his studies, he went to Argentina with other Capuchin brothers to the then-recently created Euskal Echea of Buenos Aires. There Father Soloeta taught euskara for thirteen years. Besides, he also wrote several books and grammars. After being Head of the Capuchin order in Chili-Argentina, he went to China as a missionary, where he remained until the Communist Government expelled him from the country. He went to the Philippines, where he died at 83.

Laburpena

Aita Soloeta-Dima kaputxinoa Bizkaiko Dima herrian jaio zen 1881ean, eta Filipinetan hil, 1964. urtean. Ikasketak egin, eta Argentinara jo zuen beste anaia kaputxino batzuekin, Buenos Airesen sortu berria zen Euskal Echea ikastetxera. Euskal Echean, Aita Soloetak euskara irakatsi zuen hamahiru urtez. Liburu eta gramatika batzuen egilea ere badugu. Txile-Argentinetakako kaputxinoen Nagusi izan eta gero, Txinara joan zen misiolari, eta han egon zen gobernu komunistak bertatik bota zuen arte. Handik Filipinetara joan, eta bertan hil zen 83 urteko zela.

Keywords: Soloeta-Dima, Euskal Echea of Buenos Aires, unification of the Basque language, Chinese missions

Gako hitzak: Soloeta-Dima, Buenos Airesko Euskal Echea, euskararen batasuna, Txinako misioak

1. Atarikoak

Saturnino Soloeta Iturrondobeitia -Aita Fernando M^a de Dima anaia kaputxinoentzat-, batez ere, gramatikalarari modura dugu ezaguna euskal munduan, baina haren ibilbide pertsonala aberatsa da oso. Hizkuntzalaritzan, kulturean, irakasletzan, misiolaritzan... emandako urratsak eta egindako ahaleginek pertsonaia zinez aberatsa bihurtzen dute arratiarra. Aurten, 2014an, haren heriotzaren 50. urtea betetzen delarik, omen txikitxo bat opetsi gura diogu lerroon bitartez.

2. Bizitzako lehenengo urteak

Saturnino Soloeta Iturrondobeitia Bizkaiko Dima herriko Bargondia auzoan jaio zen, Arratiako bailaran beraz, 1881eko otsailaren 11n. Mutikotxoa zela, Zornotzako prezeptoria¹ baten egin zituen komentura joan aurreko ikasketak, latinarekikoak batik bat. Gero, hamazazpi urterekin, kaputxinoek Bilboko Basurtu auzoan zeukaten komentura jo zuen (ikus 1. irudia), eta bertan urtebetez egon zen nobizio modura.



1. irudia. Kaputxinoen komentua, Bilboko Basurtu auzoan

Basurtuko komentuko egotaldia amaituta, Saturnino gazteak Gaztela aldera jo zuen, ikasketekin jarraitzeko, batez ere filosofia eta teologia arloetan sakontzeko. Aita Yurrek dioenez, 50eko hamarkadaren amaieran, Madrilén ikaskide izandako kaputxino asko gogoratzen zen Saturnino Soloetaz: buru argikoa, oroimen onekoa, sakona, ekina... Gutxi gutxi bezalakoa: “Gure urteetan igarotako bururik argienetakoa”², zioten ikaskide ohiek.

¹ Aita Julian Yurrekoak dioskunez: “Aldi areitan, olango *prezeptoria* asko egoan, an-emenka banaturik; ta areitan ikasten eben, gero abadegaietxe nagusira yoateko, filosofia ta teolojia ikasten” (Aita Julian Yurrekoa: “Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, *Egan*, 1964, 1/6, 134-140).

² *Ibidem*, 134. or.

Gaztelan ikasten dagoela, aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen kaputxinoen probintzia-banaketan. Izan ere, Bizkaia, Gaztelarekin lotuta zegoena, harengandik bereizi, eta Nafarroa eta Gipuzkoarekin lotuta geratu zen: “En 1900 se constituyó la provincia de Navarra-Aragón, transformada siete años más tarde en la de Navarra-Cantabria-Aragón”³. Bigarren erreforma horren inguruan, artean abadetu barik zegoela, Saturnino Soloeta Euskal Herrira, Hondarribira, dator, eta hango komentuan filosofia irakasle egon zen 1907-1908 ikasturtean⁴. Kaputxinoen Ordenarako Dimako Fernando izango dena, 1908ko martxoaren 13an abadetu zen, eta handik lasterrera, hilaren 19an, San Jose egunez, esan zuen bere lehenengo meza, Dimako parrokian.



2. irudia. Aita Kaputxinoen komentua, Friburgo (Suitza)

Ikastaroa amaituta, 1908ko udazkenean, Aita Soloeta Suitzako Friburgo hirira abiatu zen (ikus 2. irudia), nagusiek hala erabakita. Helburua prestakuntza hobetzea zen: hango goi-ikastetxean legetan sakondu, eta arlo horretako ikasketa bereziak egitea. Aita Yurrek diosku, orduan entzute handikoa zen Getino dominikoa⁵ zegoela irakasle Friburgo, eta Soloetari *el*

³ *Gran Enciclopedia Navarra*:


<http://www.encyclopedianavarra.com/navarra/capuchinos/4332/1/>.

⁴ Leongo San Francisco komentuaen historian birritan agertzen da aipatuta: a) “Guardanía del Padre Fermín de San Martín (1904-1907)”, eta b) “Guardanía del Padre Félix de Vegamián (1907-1910)” (Cervatos, Paulino de: *Notas Historiográficas del Convento de San Francisco de León*, El Mensajero Seráfico, Madrid, 1922, 101. eta 104. or.). Edozelan ere, gorago esan dugunez, bigarren hirurtekoan ordenaren barne-aldaketak medio, Soloeta Euskal Herrira bihurtu zen.

⁵ Luis González Alonso Getino (Lugueros-Leon, 1877-Madril, 1946), dominikoa, *La Ciencia Tomista* (Madril, 1910) aldizkariaren sortzailea: “Y es en *La Ciencia Tomista* donde, desde el primer número, publicó el P. Getino la serie de artículos que constituyen la base de su biografía de Francisco

vasco deitzen ziola, “ta arreri bakarrik, bera bakarrik ezpazan be emengoa”⁶. Seguru asko, hurrengo urteetan Soloetak erakutsi izan zuen euskaltzaletasunarekin lotuta egongo zen deitzeko modu hori.

Friburgon zegoela, Soloeta gaztea Julio Urkixo jakitunarekin hasi zen harremanetan, 1909ko otsailaren 28ko eskutitzean ikus daitekeenez (ikus 3. irudia):



3. irudia. Soloetak Julio Urkixori Friburgotik bidalitako eskutitzaren lehenengo orria (1909-02-28)⁷

Fribourg ´tik Zezeillaren 28´ean 1909´ean⁸

Urkijo ´tar Julio Jaunari

Frantzian

Neure jaun agurgarria, jaunaren paquea zurekin izan daizula.

de Vitoria, tema en torno al cual gira lo más perenne de sus publicaciones” (<http://cienciomista.dominicos.org>).

⁶ *Op. cit.*, 135. or.

⁷ Koldo Mitxelena Liburutegia.

⁸ Testuan, “s” eta “z” grafemak, beti ondo bereizten ez direnez, gaurko erara idatzi ditugu. Gainontzekoan, ahalegindu gara ortografia jatorra errespetatzen.

Askotan zure izen andiya entzun dot, ta zuk zuzentzen dozun aldizkari ederra poz-pozik irakurtzen dot. Orrela euskaldunok laister euskeratuko gera, ta euskerak beste izkuntzak arin berdinduko deitu. Ni ere euskalduna naiz ba, Arratiako semea; baña gogoz bakarrik euskalduna, gazte-gaztetarik erritik atareatu (?) nintzalako. Orain gura naunke barriz ikasi; ez gure errikoa bakarrik, ezpada euskera guztiya. Erakundeak eta idazkiak bearbearrezkoak dira orretarako. Erakunderik ez dago emen, euskaldun bakarra naiz da. Kipuchena ikasteko idazki batzuk badauka[da]z, baña ez bestetarako. Erbestean euskara ikasten ari naiz; gura neunke idazkirik egokienak ezetu, gure euskera zarra bear dan lez ikisteko. Nik, badakit zure zer eginak baztar bakoak direala, baña badakit be Bizkaitarra zareala, ta erritar baten naimendua pozik betetzen dozula. Eskerrik asko aurretik.

Azkue jaunak Bizkaiko Diputazinoari opatu eutsan euskal-izkindea gura nauke erosi, baña ez dakit zelangoa dan. Uste dot Sabiñori begi illun egiten eutsela.

Nai nuke erosi Grammaire Cantabrique Basque, par Pierre d'Urthe⁹ ex capuchino, baña ez dakit non saltzen dan, ta zenbat dan bere saria.

Bai al dakizu Arratiako Añibarrok Axular Bizkaiko euskera[ra] itzuli zeuela edo ez? Zeozer entzun dot ta; orregaitik. Erregutzen deusut bada, al badezu erantzutea, ta aurrez eskerrak emoten deusuz zure erritar S. G. M.

Fr. Fernando M^a de Dima Capuchino

Couvent des Capucins, Fribourg Suisse¹⁰

⁹ Grammaire Cantabrique-Basque fait par Pierre D'Urthe, 1712..., par les soins du Rev. Wentworth Webster..., Bagnères-de-Bigorre, D. Berot, 1900. "Sobre esta obra comenta Luis Michelena en su *Historia de la Literatura Vasca* lo siguiente: *Dejó escrita una gramática vasca con ejercicios, compuesta algo antes que la de Larramendi y mucho más rica que la de éste, aunque los materiales están presentados en un desorden caótico.* [1960:87] Sin embargo la valoración de su editor Webster y de Jacques Allières (*Symbolae Ludovico Mitxelena...*, 1985: 899-921) es mucho más positiva, pues consideran que al margen de las páginas dedicadas a la fonética, la sintaxis, etc., la exposición de la rica morfología verbal es clara y metódica" (<http://www.euskomedia.org/aunamendi/291>).

¹⁰ "[Cartas] 1909-1920 [a] Julio de Urquijo, San Juan de Luz [Manuscrito] / Fr. Fernando Soloeta de Dima", Koldo Mitxelena Liburutegia, Donostia. <http://oaiprod1.gipuzkoa.net:8080/handle/10690/3898>.

1908-1909 ikasturtea Friburgen emanda, Soloetak egotaldi bat egin zuten Hondarribiko komentuan, ikasturtearen amaieratik azarora arte, hots, Ameriketara joan arte; eta, litekeena da, dimoztarrak egotaldi hori Urkixo jaunarekin harremanetan jartzeko aprobetxatzea. Aita Yurrek zera diosku: "Eztakit Ondarribi'n bizi zan 1907-1908 aldi artan, ala bigarren aldi onetan edo bietan; baña bai, Ondarribi'n egoala, Urkixo'tar Julio jaunagaz artu-emonak izan ebazala"¹¹. Aipatutako eskutitzean (1909-02-28), Soloetak bere buruaren aurkezpena egiten duenez, pentsa dezakegu, izatekotan, bigarren egotaldian izango zituzkeela harreman pertsonal horiek Julio Urkixorekin.


Harreman horiei esker eskuratu ahal izan zuten Urkixok, Pedro Antonio Añibarro arratiarrak Axularren *Gero* liburuari bizkaieraz eginiko moldaketa: *Gueroco guero*. Izan ere, eskuizkribua Hondarribiko komentuan zegoen argitara emateke, eta Soloetak jakinarazi zion Urkixori Añibarroren lanaren berri¹². Urkixo bera hasi zen eskuizkribua *RIEV* aldizkarian atalka argitaratzen, baina ez zen osorik argitaratu, 56 buruetatik bakarrik 42 argitaratu baitziren (1923tik 1933ra). Blanca Urgell-ek, 2001ean, eskuizkribu osoaren edizio kritikoa (ikus 4. irudia) opetsi zigan¹³.

Laburra izan zen kaputxino gazteak Euskal Herrian eginiko pausaldia. Izan ere, 1909ko azaroaren 20an, bere bitzta neurri handi baten markatuko zuen Argentinarako bidea hartu zuen Dimako seme adoretuak.

¹¹ *Op. cit.*, 135. or.

¹² Julio Urkixok zera dio *RIEV* aldizkarian, 1910ean: "A última hora, cuando teníamos casi terminado este número, recibimos de Fr. Fernando M^a Soloeta, profesor de vascuence en Euskal-Echea, Buenos-Aires, un trabajo intitulado *La Literatura Euskara*. En la imposibilidad de insertarlo íntegro, entresacamos algunos párrafos que no dejarán de interesar a nuestros lectores". Artikulua honela hasten da: "Mas no se limita nuestra acción á la enseñanza oral y territorial; el amor nos arrastra hasta el viejo continente y ese mismo amor nos impulsa á poner al servicio de la prensa euskerófila nuestros felices hallazgos. En la Biblioteca de los PP. Capuchinos de Fuenterrabía, en manuscrito original, se conserva el Axular vertido al dialecto bizkaino por el célebre arratiano Fr. Pedro Añibarro. La traducción es esmerada, el lenguaje selecto, y los sinónimos y modismos infinitos en numero, como en las otras obras del mismo autor, defecto sólo perdonable porque es defectuosa la repetición sin utilidad, en razón del fin propuesto por el célebre misionero de Zarauz. [...] De todos modos creo que el *Gero* de Añibarro no ha recibido todavía los merecidos honores de la publicidad. Esperamos confiadamente que algún versado bascófilo del convento de Capuchinos de Fuenterrabía, sacrificando su modestia religiosa á los intereses del necesitado euskera, nos sorprenderá en fecha no lejana con la diligente edición de la obra dicha" (Fr. Fernando M^a Soloeta: "Añibarro traductor del *Gueroco*", *RIEV*, 4, 1910, 592-594).

¹³ Añibarro, Pedro Antonio: *Gueroco guero* [Blanca Urgell-en edizioa], Euskararen Lekukoak 22, Euskaltzaindia, Bilbo, 2001.



4. irudia. Añibarroren eskuizkribuaren azala¹⁴

3. Itsasoaz bestaldera: Buenos Airesko Euskal-Echea

Aita Soloeta-Dima 1909. urtearen azkenetan heldu zen Hego Ameriketara. Bertan 18 urte eman zituen, 15 Argentinan eta hiru Txilen. Herrialde bietan izan zituen ardura eta betebeharrak garrantzitsuak —aurrera aipatuko ditugu eurretariko batzuk—, baina denen artean, Buenos Airesko Euskal Echea ikastetxean egindako lana azpimarratu behar da; izan ere, 13urtez bera izan zen bertako “Euskara eta Euskal Literatura” katedrako arduradun nagusia. Argentina noraino sartu zen Soloetaren baitan ikusteko, esan dezagun, bertako naziotasuna lortu zuela, eta —Aita Yurrek kontatuta dakigu¹⁵— argentinartzat agertzen zuela bere burua atzerrietan.

Buenos Airesko Euskal Echearen sorrerak, Argentinan, XIX. mendearen bigarren erdian, hango euskal kolonia ugari ere ugariaren baitan, jendea erakundetzeko sortzen den nahi eta behararekin lotura estua dauka. Dinamika horri jarraituz, 1877an arabar, bizkaitar, gipuzkoar eta nafar zenbaitek “Laurak Bat” izeneko elkarte sortu zuten. Sortze horretan —Euskal Echearen sorreran beste horrenbeste esan daiteke—, izen bat aipatu beharrekoa da: Juan Sebastián Jaca. Sorreratik urte batzuetara, 1899. urtean, Jaca jauna “Laurak Bat” elkarteko lehendakaria da, eta idazten hasten da *La Baskonia* aldizkarian Argentinan zeuden euskaldun askoren gogo-bihotzetan irakiten zegoen proiektu bati buruz, euskal jatorriko pertsona —gazte, zein zahar— guztien aterpea izango zatekeen “Euskal Echea”-ri buruz, hain zuzen ere:

“De este modo, el 1º de Abril de 1900, en el local de la Sociedad Vasco-Española Laurak Bat, se realiza una reunión organizada por los presidentes de los centros Laurak Bat, Vasco Francés y Navarro, a la que asisten los siguientes señores: Rvdo. Padre Francisco Laphitz, Dr. Salvador Curutchet, Dr. Anselmo Ochoa de Retana, Beltrán Domec, Esteban Jáuregui, Juan Pedro Passicot, Luis Labadens, Antonio Larrumbe, Dr. Juan D’Artaget, Ciriraco Morea, Antonio Uriarte, Domingo Larre, Juan Sebastián Jaca, Esteban Curutchet, J. Sescose, Director del periódico *Haritza*, y José Uriarte, Director de *La Baskonia*.

[...]

Con propósito firme y expresado, según Patricio Jaca Otaño, estos hombres decididos se lanzan en una tarea organizadora que cumplen en la forma metódica y ordenada que reflejan las actas de sus reuniones privadas y de la asamblea de adherentes convocados en junio de 1901, como así en las dos memorias informativas de sus trabajos preparatorios que redactaran en el transcurso de sus cuatro años de actuación. Acción tenaz y esforzada que se concreta en la Asamblea iniciada el 17 de abril de 1904 y continuada tras cuarto intermedio el 24 de abril en que, aprobando los correspondientes Estatutos y Reglamentos, declara fundada la Euskal Echea¹⁶.

Euskal Echea laster da abian. Izan ere, 1904. urtean, 20 hektarea lur erosten dituzte Buenos Aires ondoan, Llavallol izeneko herrixkan, nesken eta mutilen ikastetxeak eta asiloa eraikitzeko. Proiektua ambizotsua zen oso: Elkarte kultural, humanista eta inspirazio katolikoko bat, euskaldunak hezteko, eta artatzeko umezaroan, gaztaroan eta, behar izanez gero, baita zahartzaroan ere. Gainera, bultzatzaileen asmoa Iparra eta Hegoa bat egitea zen bertan. Jaca jaunak fundazioaren sortze-bileran esan zuenez, “*¡Ahora no hay más Pirineos!*”¹⁷.

¹⁶ Iriani Zalakain, Marcelino / Alvarez Gila, Oscar: *Euskal Echea. La génesis de un sueño (1899-1950)*: Llavallol, E. Jaurlaritza, Gasteiz, 2003, 94-95. “Acta Fundacional” delakoa Euskal Echearen web orrian irakur daiteke, gaztelaniaz eta euskaraz (<http://www.euskalechea.esc.edu.ar/acta-fundacional.html>).

¹⁷ Errealitate horrixe heltzen dio Mikel Ezkerro historialariak, egunokaz eginiko elkarrizketa baten: “Argentinarentzat Euskal Herria ulertzen ez duten herri bat da, gehiegitan separatismoarekin erlazionatzen dutelako. Baina gu ez gara separatistak, guk Euskal Herriaren batasuna nahi dugu. Euskal Herrian ez duzue historiaren pasarte hau ondo ezagutzen baina Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunak herri berekoak direla Argentinako deserrian konturatu ziren. Aipatzen duanaren adibidea da, Rosario 1912an sortu zen *Zazpirak Bat* euskal etxea” (Blas, Iker: “Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunak herri berekoak direla Argentinako deserrian konturatu ziren”

¹⁴ *Ibidem*, 2. argazkia, XLIX. or.

¹⁵ *Op. cit.*, 139. or.



5. irudia. Euskal Echea eraiki berritan (Llavallol, Buenos Aires) ¹⁸

Esan beharra dago, Euskal Echearen lehenengo Zuzendaritza taldearen idazkaria (1904ko maiatza) Frantzisko Esteban Laphitz apaiz, idazle eta euskaltzale ezaguna izan zela, *Bi saindu heskualdunen bizia* (1867) liburu gogoangarria idatzi zuena, hain zuzen ere. Lehenago ere, 1904an, proiektuaren inguruko behin-behineko komisioa sortzen denean, talde horretako ohorezko lehendakaria izan zen Laphitz kalonjea¹⁹. Tamalez, ez zuen ikusi Euskal Echea zutik, 1905eko urriaren 25ean hil baitzen.

Obrak 1905eko abenduaren 17an hasi ziren, eta lehenengo harria jartzen deneko ospakizunean izen handiko gonbidatuak ikusten ditugu: aita-amabitiak Feliciano Zabala de Guraya eta Argentinako Errepublikako presidentea, Manuel Quintana, izan ziren²⁰. Irakaskuntzaren ardura ordena erlijioso biri

eskainiko zaie: nesken ikastetxearena Ipar Euskal Herriko Angeluko “Mariaren mirabeak” ordenari, eta mutilen ikastetxearena Nafarroako kaputxinoei²¹. 1908ko martxoan, ikasturte berriarekin batera zabaldu zen mutilen ikastetxea, eta hiru bat hilabete geroago, neskena eta asiloa, azken hau umezurtz zein edadeko jendearentzat (ikus 5. irudia).

Euskal Echeak, lehenengo harria jarri zenetik, bere urrezko ezteiak ospatzen dituenean, 1955ean, Natividad Baylac-ek, bertako ikasle izandakoak, honela laburbiltzen ditu urte horien historia bere liburuaren azken pasarteetan:

“En síntesis: Euskal-Echea fué forjada por el amor, la caridad y el trabajo de los vascos, sus hijos y amigos; todos contribuyeron a que ocupara un sitio de honor entre las Instituciones más prestigiosas del país.

Al conjuro de su acción magnífica millares de niños, hombres y mujeres del mañana, bebieron en las fuentes de la religión y del saber la savia vivificante de su formación moral e intelectual, y cientos de ancianos vascos, desamparados, vieron correr sus últimos días an la tranquilidad de un hogar

[Mikel Ezkerro historialariari eginiko elkarrizketa], <http://www.argia.com/blogak/iker-blas/2014/02/10/>. Rosario hiria eta *Zazpirak Bat* Euskal Etxea aipatu ditugunez, pozgarria da, zinez, egunotako berri hau: “Rosarioko Unibertsitateak Euskara katedra sortu du” (*Deia*, 2014-03-24, 21. or.).

¹⁸ *Euskal Echea. La génesis de un sueño (1899-1950): Llavallol*, 122-123.

¹⁹ “En dicha calidad de presidente honorario, aparece firmando el llamamiento hecho a los *baskongados nativos o de origen* para que se unan a la naciente institución [...] En el colegio instalado finalmente en Llavallol, se le dedicó un pabellón” (*Ibidem*, 237).

²⁰ “El acto fue bendecido por el Arzobispo, doctor Antonio Espinosa. Semejante emprendimiento no podía tener invitados menos importantes que el ex Presidente de la República, doctor Carlos Pellegrini y el Ministro de la República del Uruguay, don Daniel Muñoz; y los escritores Lucas Ayarragaray, Fr. Enrique Sisson y Godofredo Daireaux” (Alvarez Gila, Oscar / Iriani, Marcelino: “Euskal Echea. Un intento étnico para preservar lo distinto”, *Sancho el Sabio*, 22, 2005, 26. or.).

²¹ “En el tren de las 13hr. 30 minutos, único que corría desde Buenos Aires a Cañuelas del Ferrocarril Sud llegaron en el año 1908, a la estación de Llavallol, distrito de Lomas de Zamora en la provincia de Buenos Aires, un grupo de franciscanos de la Orden Frailes Menores Capuchinos para sembrar la semilla de la fe. Con este arribo a Llavallol dan origen, forma y prestigio al COLEGIO EUSKAL-ECHEA” (“Lorenzo Monaldi y los Capuchinos de Llavallol”, *Nueva Pompeya*, año 89, 878, 2013 agos./sept./oct., 6-7). Ikusi sarean: <http://issuu.com/frleo/docs/rev.878>.



6. irudia. Euskal Echea, gaur egun (Llavallol, Buenos Aires)

ofrecido cariñosamente por sus propios hermanos de raza.

Zorionekoa izan bedi gisa ontako ondorenak eman dituen guzian “Euskal-Etxea”. Bendito el hogar que tales frutos dió.

Que la Providencia bendiga a Euskal-Echea en este Año Mariano del Cincuentenario de su fundación, a fin de que continúe su acción próspera y generosa para gloria de la raza vasca y bien de nuestra querida Argentina²².

Sortu zenetik mende luzetxo bat pasa denean —110 urte joan dira fundazio-akta onartu zenetik—, zutik eta sendo jarraitzen du Euskal Echeak (ikus 6. irudia), eta, Interneten bitartez, lau haizeetara zabaltzen du bere mezua²³.

Ikastetxean Aita Soloetak hamairu urte eman zituen (1910-1923), eta irakasletzan eta idazletzan jardun zuen bertan, Llavallol-en burutu baitzituen bere obra nagusiak, denak ere euskal hizkuntzaren ingurukoak. Honan zer dioskun gorago aipatu dugun Baylac andreak:

“Muchas generaciones de niños lo conocieron y todos lo apreciaron, porque bajo su aspecto austero ocultaba una bondad extraordinaria, fruto de su acendrado espíritu de santidad. Sumamente ilustrado, a sus múltiples funciones en el Euskal Echea, sumó la de

profesor de euskera. Enseñaba su lengua de origen con entrañable afecto y no pocos premios se discernieron entre sus alumnos, en mérito al mayor aprovechamiento de sus clases²⁴.

Euskal Echean, sortzetik bertatik eman zitzaion leku esanguratsua euskal hizkuntzari, bertako ikasketen osagarri funtsezkotzat ikusi baitzuten proiektuaren bultzatzaileek (ikus 7. eta 8. irudiak). Bide horretan, Aita Soloetak lan eskerga egin zuen euskararen alde, Dima bere jaioterritik milaka kilometrotara dagoen Buenos Aires hiri erraldoian emandako eskoletan. Eskertu ere, behin baino gehiagotan egin zion lan hori bertako euskal komunitateak:

“Yo conocía al Padre Soloeta únicamente como religioso ejemplar, hoy que creo conocerlo algo, como basko y filósofo, no puedo por menos de hacer pública mi admiración por el hombre que compartiendo lo divino con lo humano, será para Euskal Echea uno de sus más valiosos factores de engrandecimiento.

Es tan importante, mirada bajo el punto de vista vascófilo, su misión en la institución modelo, que si su modestia no se ofendiera, y sin que la apreciación que expongo aminore la importancia de la obra de sus demás compañeros, me atrevería á decir que en ella estriba buena parte del éxito de los nobles deseos que los inspiradores de la fundación persiguen.

²² Baylac, Natividad: *Euskal Echea. Su obra a través de 50 años, 1904-1954*, Buenos Aires, 1955, 164. or.

²³ Gorago aipatu dugun web orrian (<http://euskalechea.esc.edu.ar>) Euskal Echeak jakingarri asko eskaintzen ditu.

²⁴ *Op. cit.*: 112. or.



7. irudia. Euskal Echean, Euskaran, Euskal Historian eta Nekazaritzan saritutako ikasleatariko batzuk²⁶

¿Por qué? Creo que basten á convencer estas palabras: el padre Soloeta, es el que tiene á su cargo la enseñanza del euskera²⁵.

Gaur egun ere, Dimako semearen heriotzaren 50. urteurrena betetzen den honetan, Euskal Echearen web ofizialean ("Gure Historia" atala) aipamen berezia egiten zaio Aita Soloetari, euskara eta euskal kulturaren alde eginiko lana beren-beregi azpimarratuz. Era berean, esanguratsu da oso, hona aldatu dugun pasarteatxoan egiten den komentarioa:

"La enseñanza de la lengua vasca era optativa, a tal punto que se entregaban premios anuales a los mejores alumnos de vasco.

²⁵ Egia, Juan de: "En Euskal-Echea", *La Baskonia*, 649, 1911-10-10, 4. or. *Uchagakoa* ezizendun idazlea, urrunago doa bere laudorioetan: "Su último estudio del verbo vasco [*Conjugación sintética del verbo basco comenzado por consonante*, 1913], propio, original, característico, le coloca a la altura de los grandes gramáticos y esta muestra, prueba palpable de lo que su talento eminentemente práctico puede realizar en el terreno de la lingüística baska, hace que esperemos con ansia su obra suprema, colosal, y trascendentalísima, como es trascendental y grande la obra que entraña la salvación de una raza, el triunfo de un pueblo: la unificación de los dialectos de la lengua baska. Juntamente con su gran compañero Astarloa, contribuye al resurgimiento de nuestra habla nacional y sus obras serán el pedestal en el cual ha de colocarle la generación actual para pasmo y admiración de las futuras, que mejor que la presente sabrán apreciar su titánica labor" (*Uchagakoa*: "Figuras Euskarianas. El R. P. Soloeta", *La Baskonia*, 735, 1914-02-28, 229. or.).

²⁶ Euskal Echea: *Anuario*, 1927.

El primero (sic) profesor fue el Pbro Fernando Soloeta Dima, que escribió entre 1912 y 1922 cuatro libros de euskera. Para sus alumnos, siempre fue el *padre Jauna* (Señor, en euskera), y quizás esa palabra, Señor, sea la que lo define enteramente²⁷.



8. irudia. *La Baskonia* aldizkariak Euskara ikasgaiari ematen zuten sari berezia²⁸

²⁷ <http://euskalechea.esc.edu.ar/llavallol/historia.htm> (Azken kontsulta, 2014-09-12an egina).

²⁸ "Euskal-Echea", *La Baskonia*, 655, 1911-12-10, 104. or.

4. Aita Soloetak Euskal Echeaz

Dakigunez, Soloeta 1909. urtearen azkenetan heldu zen Ameriketara. Hori dela eta, eta Argentinako irakaskuntzaren baitako eskola-egutegia kontuan hartuta —otsailaren azken astean hasi ohi da ikasturtea, eta abenduaren amaieran bukatu²⁹—, beranduxe hasi zen 1910eko kurtsua euskara-eskolei zegokienez. Katedra horrek, beraz, halako hasiera probisional bat izan zuen, eta ez zen ospakizun berezirik izan Euskal Echean. Hurrengo ikasturtearen hasieran (1911) baina, Aita Soloetak hitzaldi luze eta mamitsu bat³⁰ irakurri zuen, kurtsuari hasiera solemneago bat emanik. Hitzaldiaren hasieran, kaputxino adoretzuak hasiera hartan topatutako arazoak eta oztipoak aipatzeari ekin zion:

“Los alumnos basko-argentinos, no obstante su despejo natural, su aptitud para toda suerte de estudios, parecían refractarios en extremo al Euzkera, y de no profesar amor tan profundo á todo lo relacionado con Euzkadi y de ver comprometido nuestro amor propio en el ejercicio del profesorado, de buenas á primeras suprimimos las clases euzkéricas para emplear el tiempo en cosas más al alcance de los niños, ya que toda otra tentativa parecía una verdadera temeridad en el camino emprendido y el trabajo del profesor y de los discípulos sumamente penoso y sobre todo infructuoso.

Las primeras palabras en el lenguaje á estudiar fueron acogidas con extrañamiento y con despectiva sonrisa. Las respuestas dadas á las preguntas del maestro eran, por lo general, de esta naturaleza: *Yo no puedo estudiar el vasco, es difícil, ingrato á nuestros oídos*. Cuando el maestro, pasados días tras días, preguntaba la lección á un discípulo dado: *Fulano, díganos por favor algo de la lección señalada: No la he aprendido, Padre, es muy difícil el vasco, y además feo, áspero, duro; por Dios, Padre, enséñenos el francés, que es muy fácil y, por otra parte, lindísimo*.

Así dialogábamos en los comienzos de nuestra carrera y del primer año del curso basko³¹.

Zer egin holako kinka baten? Ez zuen-eta dimoztarrak aldeko haizea aurkitu lehenengo

momentuetan Euskal Echeko eskoletan. Dio Soloetak, une hartantxe gogoratu zela bizkaitarra zela, euskalduna... Eta, Argentinako liburu baten irakurri zuenez, temoso ere temoso dela euskalduna, eta behin *bakoitia* esanez gero, *bakoitia* dela, *bikoitia* bada ere. Gainera, ikasleak eta bera arraza berekoak direla datorkio burura kaputxinoari. Halandaze, aurrera egin beharra zegoen:

“No hay más remedio, repetía de continuo en el interior de mi corazón, que seguir adelante, aunque no tuviésemos otra razón que el haber comenzado: *Asi ta ekin, ekin da jarraitu. ¡Aurrerá! ta ¡Aurrerá! ¡beti! ¡beti!*”³².

Baina, nola altxatu ikasleen gogo abaildu hori? Zelan egin aurre kontrakar sendo, finkatu eta barnerratu horri? Ataza gogorra, zinez! Baina Bargondiako kaputxinoa nekagaitza zen, eta apurka-apurka, “Ezina, ekinez egina” esakune zaharrari jarraituz, egoerari buelta ematen hasi zen:

“Así las cosas, con la memoria de lo sucedido á nosotros en ocasiones análogas, tratamos en primer lugar, de levantar el abatido espíritu, infundirles ánimo y valor, repetir con pertinaz constancia las lecciones, centuplicar ejemplos; y merced á estos procedimientos, hacia mediados de curso, los nuevos baskófilos conversaban con el profesor en lenguaje que estimaban de todo inaprendible.

Desde aquella fecha, los más se encariñaron con el euzkera, los menos permanecieron en la indiferencia, y todos á una conceptuaron el basco idioma pulcro, rico y filosófico, y estudiable en corto espacio de tiempo”³³.

Sutsu jarraitzen du Soloetak bere hitzaldian: “He aquí en breves palabras, mis queridos jóvenes la historia de nuestro pasado. Humildes por demás fueron nuestros comienzos; mas la constancia baska coronó nuestro trabajo con un éxito inesperado”. Soloetak goretzi egiten ditu ikasleek aurreko kurtsuan eginiko ahalegin guztiak, eta animatu, hasten den kurtsu berrian lanean jarrai dezaten; izan ere euskal kolektibitatearen nahia da Argentinako euskal umeak euskalduntzea, eta arbasoen kulturen hezteak:

“En este año á todos obliga el estudio del euzkara, cosa que en el anterior obligaba solamente á los del curso superior. Esta determinación no se funda en un capricho nuestro, sino en la naturaleza del colegio, en los reglamentos de nuestro instituto, en los deseos de muchos socios, manifestados á


²⁹ Argentinan, ikasturtea nola antolatu ohi den ikusteko, aurtengo (2014) datuak ikus ditzakegu: “Las clases del ciclo lectivo 2014 comenzarán el miércoles 26 de febrero en todo el país, según confirmó ayer el ministro de Educación de la Nación, Alberto Sileoni. Terminarán el 19 de diciembre, con el objetivo principal de lograr un ciclo lectivo de 190 días de clase” (<http://www.clarin.com/educacion>, 2013-10-30).

³⁰ R. P. Soloeta: “Euskalechea: Discurso pronunciado por el R. P. Soloeta, en la apertura de las clases baskongadas de los institutos de Euskal-Echea”, *La Baskonia*, (I) 632, 1911, 325-326 / (II) 633, 1911, 341-343 / (III) 634, 1911, 360-362.

³¹ *Ibidem* (I), 325. or.

³² *Ibidem*, 325. or. Azken berbak, letra etzanez daudenak, euskaraz esan zituen Soloetak, hitzaldia erdaraz egin bazuen ere.

³³ *Ibidem*, 325. or.



9. irudia. Aita Soloeta, Euskal Echea-ko bulegoan lanean

nosotros en ocasiones solemnes y, finalmente, en las aspiraciones de la colectividad basko-argentina”³⁴.

Ikasturtea amaitzen denan —1911ko azken egunetan gaude—, kurtso amaierako hitzaldian aldaketa nabarmen bat dago; izan ere, Aita Soloetak euskara hutsean egin zuen berbaldi hori, ikasleek egindako aurrerapena, argi eta garbi utziz Euskal Echeako partaide guztien aurrean. Honela zuzendu zitzairen euskara irakaslea, urtean zehar, berarekin egondako argentinarrak ikasleei:

“Nere ikasle maitiak: gaurr bukatzen degu aurrtengo Epaillan asi gendun euzko ikastaba, ta egiazki nik orrduban uste nuben baño askoz obeto; bada jakinarren nik zuben euzkaltasuna ezitzaidan bururatzen ainbestekua izango zala; baño zuben euzko arjentinarrak gogoz arrtu zenduten nere burubidia-au; asi ta ekin, aurrera-ta-aurrera beti. Ori bai dala ori! euzkaldun bene-benetakuak izatia. Etzerate, ez nagitu; beztela zuben euzkaltasuna juango zan, ta geldituko zan adimendu azkar-ori, dana kedarrturik, bijotza leiturik, ta zuben izate bizkorra euzkel getu-ta! Ederrki-ederrki, mutillak, bijotz ta gogoz dagurrzutet³⁵, ta

euzkal erriko mendijak, euzko-erriko ibaijak, Bizkaitarr eta Kiputxak, Arabak, Lapurdik ta Xiberok; euzko-erridi guztijak era berian agurrten zaituzte. Gora ta gora! euzkal [e]txeko mutillak! Gora bai-ta-gora Euzkadi gure aberri maitia!

[...]

Azitik langilliak zerate, ikasle gogorak, ixillak ta asi-etzkerok jarraitzen dakizutenak. Egunoro ikastolaratu zerate urrte guzti-guztijan, egikerak egunian bete dituzute; ta Erakusliaren gogua poztu ta atzegindu dezute. Gañera azkarr-azkarrak zerate, bada ikasi dezute euzko izti dana, aztertu euzko aditz arrigarrija, ta mintzatzen zerate euzkera garbijan ta pollitan. Ykasgea da auzkera? Baijetz diñute erddaldunak ta euzkaldunak ere umez ikasten ezpada. Zuben ere ala zenesaten igez euzkera ikasten asi ziñatenian, orain barrdin dasadazute dala ele erresa, biguña, samurra ta jakintzuba, urrte batean ezpada bitan ondo ikasi lezakena. Azkenez dijozutet euzkaldun bene-benetakuak zeratela Arrjentinan berrian, euzkal erritik urruti, euzkadirrak baño lenago euzkeratu zeratelako, ezparrik mingañez, bai ta egitez”³⁶.

³⁴ *Ibidem*, 325. or. Aurrerago, “Euskal Historia” eta “Euskal Zuzenbidea” ikasgaien garrantzia ere, aipatu zituen bere hitzaldian.

³⁵ Dagurrzutet: *agurtzen zaituztet* adizkiaren ordezkotrinkoa. Holako asko darabilta Soloetak bere euskarazko idazkietan.

³⁶ Soloeta-Dima, Fernando M^a: “Soloeta tarr Abak Euzkal-Etxian egindako itzekisuna”, *La Baskonia*, 657, 1911-12-30, 136. or.

Badaragoio, beraz, Aita Soloetak Euskal Echean, euskal ume eta gazte argentinarrek euskaldundu nahirik. Bigarren Euzkadi bat nahiko zukeen lortu dimoztarrak Euskal Herritik milaka kilometrotara, eta bere luma, bere gogoa, bere denbora eta bere indar guzti-guztiak amets horrixe opetsi gura izan zizkion.

5. Aita Soloeta-Dima, kultur eragile eta euskaldun engaiatua

Argentinan, Aita Soloetak harreman handiak izan zituen bertako euskaldunekin, eta parte aktiboa hartu zuen orduko giro kulturallean. Aita Julian Yurrekoak honela laburbiltzen ditu bere anaia Fernando Mariaren³⁷ kultur harremanak:

“Olan, euskoei buruz bi tomodun liburu mamitsu, ederra idatzi eban Juan Sebastian Jaka yaunagaz³⁸. Bardin Amorrortu yaun argitaraldiagaz³⁹; ta Uriarte, [La] Baskonia aldizkariaren yaube ta artezkari ta idazle-buruagaz⁴⁰; diru-kontutan, Argentina n ezaguna izan zan Olariaga euskaldun yaunagaz⁴¹. Yaun onek, oker ezpanadi, bere

³⁷ Fernando Maria izena darabil batzuetan Soloetak, dokumenturik gehienetan *Fernando* baino ez da agertzen baina.

³⁸ Juan Sebastián Jaka (1854-1922), Berastegin (Gipuzkoa) jaioa, 10 urterekin heldu zen Argentinara. Farmazilaria zen ogibidez. Hona hemen, Aita Yurrek aipaturiko liburua: *Euskaria: la historia política y social de las naciones a través de la filosofía*, Imprenta La Euskaria, Buenos Aires, 1910, 2 v., 20 cm. Jaka jaunak dio Soloetak zortzi artikulu opetsi zizkiola bere *Euskaria* liburuari, *La Euskaria* aldizkarian: “El R. P. Soloeta ha tenido la deferencia de dedicar á mi obra una crítica razonada que ha publicado en ocho números de esta revista” (Jaca, Juan S.: “*Euskaria*. Una aclaración á las críticas del P. Soloeta respecto á esta obra”, *La Euskaria*, 223, 1910-12-24, 1. or.). Aldizkariok ez daude baina, Eusko Jaurilaritzaren “Urazandi” proiektuko materialetan (<http://urazandi.euskaletxeak.net>).

³⁹ Pedro María de Amorrortu, bilbotarra semea. 1910ean heldu zen Argentinara. Paper eta inprenta arloko enpresaria. Oso pertsona aktiboa euskal erakundeen inguruan Argentinan: “Su hijo Pedro junto con sus hermanos Antonia, Víctor, Félix y Francisco fueron los impresores de la primera edición de las *Obras Completas* de Don Sabino de Arana Goiri (Buenos Aires 1965)” (http://ianasagasti.blogspot.com/mi_blog).

⁴⁰ Jose Rufo de Ugarte (1867-1932). Bermeotarra, 1889an heldu zen Argentinara. Francisco Grandmontagne-rekin batera, 1893an, *La Vasconia* (1903tik aurrera *La Baskonia*) aldizkaria fundatu zuen: “En *La Baskonia* publicaron escritores de prestigio entre ellos Florencio de Basaldúa, Arturo Campion, Pio Baroja, Miguel de Unamuno, Tomás de Otaegui, Carmelo Echegaray, Aita Donostia, Ramiro y María de Maeztu, Rubén Darío y una extensa lista [...]. Difundió la cultura euskera en todas sus manifestaciones, idioma, pintura, escultura, música, política, sociales y humorismo entre una gran diversidad de temas” (<http://www.euskomedia.org/aunamendi/129742>).

⁴¹ Nemesio de Olariaga (1864-1933). Andoindarra, 15 urterekin joan zen Argentinara, Buenos Aires probintziako

kontu, argitara eban *Ami vasco* gutuna, milla ta millak iyeki⁴², eunka.

Donostia r Yoseba Andoni Abak⁴³ be, Argentina ra zanean Blazy kalongeagaz, Euskal-Erriari buruz mintzaldiak entzunaraztera, laguntzalle sutsu ta argia arkitu eban Soloeta Abagan⁴⁴.

Ikusten dugunez, orduko euskal eragile nagusi gehienekin izan zituen harremanak Aita Soloetak, beti ere euskararentzat eta euskal kulturarentzat onura eta laguntza nondik aterako. Era berean, Soloeta oso integratuta ikusten dugu Argentinako euskal komunitateak antolatutako ekintzetan: direla Euskal Jaiak, direla Lujan-go Amaren santutegirako erromesaldiak, dela Sota & Aznar Itsas Eskolaren bisita Buenos Airesera... han egongo zen Aita Soloeta, eta haren hitzaldi-sermoietan beti utziko zion leku bat umetako hizkuntzari.

Aita Soloetaren engaiamendu pertsonalari bagagozkio, apunte txiki baina zinez esanguratsu bat baino ez. 1914ko urrian gaude, eta I. Munda Gerra hasita dago. Horrek eragin zuzena du Argentinako euskaldunengan, batez ere, Euskal Herriko iparraldetik Ameriketara joandakoengan, euren senide asko gerrara deiturik izan ziren-eta. Baina, Euskal Echeako euskal izpirituan -¡*Ahora no hay más Pirineos!*- ez zegoen iparraldekorik, ez hegoaldekorik, euskaldunak baino. Gerra-egoera horren aurrean, Aita Soloetak eta beste hiru fraidek euren Aita Nagusiari idazten diote, Erromara, baimena eskatuz Europako frentetara joan ahal izateko, euskal soldaduak laguntzen:

“Llavallo (Euskal-Echea) 24 de Octubre 1914.

Reverendísimo Padre General:

Los firmantes son cuatro padres capuchinos, alumnos de la provincia de Navarra, y profesores del Colegio basko de la Euskal Echea. Según sus instrucciones en la *Analecta ordinis minorum Capuccinorum*, rezamos todos los días por nuestros colegas que luchan en la más cruel y espantosa guerra y sobre todo *pro illos juvenes qui ad officia patrice proestanda claustris pacem derelinquere debuerunt, pero no nos*

Maipú herrira, hain zuzen ere. Euskal Echearen sustatzaile sutsuenetarikoa bat izan zen. Llavallo-eko pabilioi batek haren alaba baten izena (Julia) darama, Olariagak hornitu baitzituen pabilioi horrek eragindako gastu guztiak. Era berean, Euskal Echea proiektuko lehenengo akzioak (1-3) Olariaga familiak erosi zituen. *Irrintzi* aldizkariaren fundatzailea ere izan genuen Olariaga; eta, 1921. urtean, Argentinako presidente Hipólito Yrigoyenek “Banco de la Nación Argentina” banketxeko zuzendari izendatu zuen.

⁴² Iyeki: ale (gure oharra).

⁴³ Aita Donostia musikalaria ezaguna (1886-1956).

⁴⁴ “Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 135. or.

contentamos sólo con rezar, queremos también consolar a los tristes, mitigar los dolores, socorrer á los heridos y atender a los enfermos. Por ese motivo le pedimos encarecidamente concedernos su bendición y autorización, para prestar nuestros caritativos servicios á los soldados baskos en la piadosa Institución de la Cruz Roja. Aquellos colegas y hermanos de idioma y raza, están alejados de sacerdotes que hablen la antigua y admirable lengua baska.

Deseamos pues socorrer con nuestra ayuda á los soldados baskos del Bajo Pirineo, tanto en las necesidades del alma como en sus dolencias físicas.

Estamos seguros, Reverendísimo Padre General, que usted no rechazará nuestro sincero y humanitario pedido, saludámosle muy respetuosamente. —P. Pío de Orikain, P. Soloeta, P. Carlos de Lesaka, [P.] Niceto de Azpeitia”⁴⁵.

Erantzuna, negatiboa izan zen; ezezkoa hartu zuten kaputxino adoretuok Erromatik: “[...] pero dado el conjunto de circunstancias que en el caso concurren, no nos parece oportuno, al menos de momento, utilizar sus servicios en la forma y para el fin dedicados”⁴⁶. Artikuluaren amaieran, egileak ailea hau gehitzen du, Euskal Echeako fraileen eskuzabaltasuna goraiatuz: “Tan elevada como espontánea actitud pone de relieve una vez más la generosidad de los corazones baskos en los momentos de prueba”⁴⁷.

6. Aita Soloeta-Dima, idazle

Idazletzan ere, ekarpen polita egin zuen dimoztarrak Txile-Argentinetan eginiko egotaldi luzean. Aldizkariei dagokienez, garaiko argitalpen askotan ikus daiteke Soloetaren sinadura⁴⁸, batez ere, *La Baskonia* eta *La Euskaria* aldizkarietan; eta neurri txikiago baten, *Euzkotarra*, Montevideoko *Euskal Errian*... Euskal Herriko aldizkarietan ere, lantzean behin argitaratu zituen kolaborazioak: *RIEV*, *Euzkadi: ciencias, artes y letras*, *Euskal Esnalea*, *Euzkadi*... Erabilitako gaiak era honetara laburbildu daitezke: hizkuntzalaritza,

⁴⁵ X. X.: “El patriotismo basko de los profesores de la Euskal-Echea”, *La Baskonia*, 764, 1914-12-20, 121. or.

⁴⁶ Gutuna azaroaren 25ekoa da, eta honako sinadura hau dauka: *Fr. José Ant., Pro. G. Comn. E. O. F. M. Cap. (Ibidem)*, 121. or.)

⁴⁷ *Ibidem*, 121. or.

⁴⁸ Era askotara izenpetzen zituen Soloetak bere lanak: P. Soloeta, Padre Soloeta, Soloeta Aba, Soloeta'tar Aba, S., Fernando de Dima, Iturriondobeitia, Saturnino Iturriondobeitia, P. Dima, Barrgondia/Bargondia, P. Begoña Soloeta, Gregorio Soloeta, Pernanda Euzkotarra... *La Baskonia* aldizkarian argitaraturiko artikulua gehienetan honako sinadura hau agertzen da: “P. Soloeta. Profesor de Euzkera de Euskal-Echea”. Azken urtekoetan “P. Soloeta” baino ez. Izan ere, urteotan Aita Soloetak beste ardura batzuk izan zituen Txile-Argentinetan.

onomastika, historia, literatura, Euskal Herria eta Argentina, Euskal Echea...

Argentinan argitaratutako liburuei bagagozkie, bost obra aipa ditzakegu, nahiz eta eurretari batek, antza, ez zuen argia ikusteko zoririk izan. Obrarik gehienak —orduko testugintza urriak eta urruntasunak eraginda— Euskal Echeako eskolei begira burutu zituen dimoztarrak, bertako ikasleek, euskara-eskoletan, testu modura erabili ahal izan zituzten. Ikus ditzagun banan-banan:

1. *Curso Primero del Idioma Basko*, Tip. de La Baskonia, Buenos Aires, 1912, 92 or.

2. *Curso Segundo del Idioma Basko*⁴⁹ [*Lecciones para una Gramática Bascongada, La Baskonia* aldizkaria, 1912-urria / 1914-ekaina, 12 atal⁵⁰].

3. “*Le Petit Basque*”. *Cours Elementaire de Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*, Imp. Vincenty, Bossio & Cia., Buenos Aires, 1913, 148 or.

4. *Conjugación Sintética del Verbo Basko comenzado por consonante*, Imp. La Euskaria, Buenos Aires, 1913, 58 or.

5. *Ensayo de la Unificación de Dialectos Baskos*, Tip. La Baskonia, Buenos Aires, 1922, 173 or.

Lehenengo liburuari bagagozkio, *Curso Primero del Idioma Basko*⁵¹, azpimarragarria da obraren izaera praktikoa. Izan ere, Soloetak hutsune handi bat ikusten du euskal gramatiketan, ez baitzeuden liburuok irakaskuntzari begira pentsatuak. Alderdi didaktikoa hori buruan zuela ekin zion irakasle kaputxinoak gramatika bat idazteari:


“Porque, fuerza es confesar, que en los tratados didácticos euzkaldunas, publicados hasta la fecha, no se tienen en consideración los diversos grados que se cursan en las escuelas bien reglamentadas. Las gramáticas bascas que conocemos, por otra parte muy recomendables algunas de ellas, adolecen del grave defecto de menospreciar las condiciones del adolescente.

⁴⁹ Aita Yurrek dio obra hori ez zuela inoiz esku artean izan: “Esta obrita no ha llegado a mis manos” (“Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 136. or.).

⁵⁰ Montevideoko *Euskal Erria* aldizkarian ere argitaratu zen gramatika hau. Atalak berdintsuak dira batean eta bestean.

⁵¹ Ricardo Gómez Lópezek, iazko azaroan, liburu honen azterketa sakon bat egin zuen “Euskara-Erromantze Linguistikaren IV. Jardunaldietan” (2013/11/29), Deustuko Unibertsitatean. Hitzaldiaren izenburua honakoa hau izan zen: “La gramática vasca en la época del *Euskal Pizkunde*: el Curso primero del idioma basko (1912) de Soloeta-Dima”. Hizlariaren helburua bikoitza izan zen: a) Liburuan islatzen diren ideia linguistikoak aztertzea; eta, b) S. Aranaren ideia linguistiko eta politikoen eragin posiblea aztertzea eskola-gramatika horretan (www.slideshare.net/FiloBlogia/gmez-2013-jlvrsoloeta-dima).

Esta carencia, en nuestra literatura, de gramáticas adecuadas para jóvenes cursantes los diversos grados escolares, me ha movido á arreglar y publicar dos obritas intituladas: *Curso primero del idioma basko* y *Curso segundo del idioma basko*⁵².



10. irudia. Soloetaren lehenengo liburua (1912)⁵³

Bizkaitarra izan arren, Soloetak erdialdeko euskalkia, gipuzkera, aukeratu zuen bere *Cursoaren* oinarri. Hautaketa honetan, arrazoiak praktikoak izango ziren, Argentinako euskaldunak Euskal Herri osokoak baitziren. Edozelan ere, beste arrazoi batzuk ere bazeuzkan Soloetak, *Euzkadi* aldizkariak planteatutako galdetegi bati erantzutean ikus daitekeenez:

“Para mí la unificación a base del dialecto gipuzkoano, adoptado desde ahora

⁵² Soloeta-Dima, Fernando M^a: *Curso primero del idioma basko* [Hitzaurrea: “Dos palabras al lector], Imp. de La Baskonia, B. Aires, 1912, 7-8. Liburuaren eskaintza Jaka, Lizarralde eta Olariaga jaunei egiten die: “A la veterada trinidad de publicistas baskos de Argentina, JAKA´tar JON, LIZARRALDE´tar DANIEL y OLARIAGA´tar NEMESI, dedica y ofrece este insignificante obsequio EL AUTOR”.

⁵³ Azkue Biblioteka (Euskaltzaindia).

como literario, es la solución más práctica⁵⁴; *el gipuzkoano es un dialecto vivo, hablado por mayor número de personas que ningún otro, el más céntrico de todos, el más afín a los demás dialectos y el de mayor influencia sobre todos...* Yo no tengo ninguna prevención contra el dialecto gipuzkoano; la mejor prueba es que, siendo yo bizkaino muy pronunciado, escribí mi primera gramatiquilla en dialecto gipuzkoano, y la segunda en labortano⁵⁵.

Gorago esan dugunez, Aita Soloetak liburuki bi agindu zizkigun bere *Curso Primero del Idioma Basko* eskola-gramatikaren hitzaurrean. Aita Yurrek, zuhurtzia handiz zioskun liburua ez zela bere eskuetara heldu. Casimiro Pérez Aguirre eta Vidal Pérez de Villarreal-ek “Este último [*Curso Segundo del Idioma Basko*] quedó inédito” dioskute euren *Escritores de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón* liburu eskergarrian⁵⁶. Badirudi, bigarren liburukia ez zela argitaratu liburu-formatuarekin, baina Soloetak Uruguai-Argentinetakoa aldizkarietan argitaratutako artikulua eta kolaborazioei erreparatzen badiegu (ikus 11. irudia), konturatuko gara, *Bigarren Curso* horrek —oso-osorik ez dakigu, baina zati handi batek bai— *La Baskonia* aldizkarian ikusi zuela argia.

Lehenengo atala 1912ko urriaren 10ean argitaratu zen, eta hauxe zuen izenburu nagusi: *LECCIONES PARA UNA GRAMATICA BASKONGADA. Una gramática crítica*. Ikus dezagun zelan aurkezten digun Soloetak egin asmo duen Gramatika berri hori:

“Saben ya los asiduos lectores de *La Baskonia*, que tenemos en preparación un **2º curso del idioma baskongado**⁵⁷ más voluminoso y mucho más completo que el primero que conocen los subcriptores de nuestra revista. En esta publicación nos proponemos examinar seriamente los fundamentos de nuestro idioma con el intento de ofrecer á los hermanos de mi raza una gramática razonada y crítica. Es preciso confesar humildemente que nuestros tratadistas de antaño igualmente han descuidado el método crítico que el didáctico⁵⁸. Y con esta franca declaración no sufren detrimento de

⁵⁴ Letrakera beltza originalekoa da.

⁵⁵ Soloeta-Dima, Fernando: *Ensayo de la unificación de dialectos baskos* [Hitzaurrea: “Introducción”], Tip. La Baskonia, B. Aires, 1922, 6-7. Letra etzanez dagoen ataltxo da *Euzkadi* aldizkarian agertu zena. Guk, aipatutako liburuaren “Introducción” ataletik hartu dugu pasartea. (Originalean kakotx artean agertzen da).

⁵⁶ Pérez Aguirre, Casimiro J. J. / Pérez de Villarreal, Vidal: *Escritores de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón*, Curia Provincial de Capuchinos, Pamplona, 2001, 474. or.

⁵⁷ Letrakera beltza gurea da.

⁵⁸ Ikusten dugunez, hemen ere *Curso Primero...* liburuaren hitzaurrean azaldutako kritikari daragoio berriro.

ninguna especie los méritos conquistados por nuestros escritores [...]. Y tengo la más íntima satisfacción en estampar en estas cuartillas los gloriosos nombres de Axular, Laramendi, Mendiburu, Astarloa, Mogel, Lardizábal, Campión, Arana, Elizalde, Mendizabal, Bera, Renteria, Etxaide, Azkue, Agirre, Urkijo, etc., los cuales me han introducido en el conocimiento de nuestras letras”⁵⁹.

186

LECCIONES PARA UNA GRAMATICA BASKONGADA

V

1º Los numerales colectivos se forman subyugando á los cardinales la terminación "ka": Zortakana, ochaio, & cosa de ocho unidades; "amarrekua, de cinco.

2º Los multiplicativos se forman colocando entre el multiplicando y multiplicador al infijo "eta". Lau-retain-bost, ogei, 4 x 5, 20.

3º Los distributivos se forman de las dos maneras siguientes: a) agregando al cardinal la terminación "baka"; "būnaka, de dos en dos; b) subyugando la terminación "tan baka", de uno en uno.

Nota.—En el número tercero dos subijos representan una sola idea, cual de los dos representa más gráficamente la función que se les pretende dar?

VOCABULARIO

Aberri-jak.	los animales
Aberri.	patria
Arrigorri-jan.	en Arrigorria
Aaska.	atrapado
Austa.	calera
Batzo-be-tan.	algunas veces
Bekaki.	frete
Belarri.	oreja
Bizkai 'ko.	de Bizcaya
Elderu.	hermosar
Egiten.	hacer
Elderdu.	extranjero
Esku.	mano
Españeko.	de España
Etsai.	enemigo
Gabiltza.	andamos
Gelditu.	quedar
Oje-nak.	los mis
Gogo.	alma
Ogogatu.	animoso
Indar.	fuerza
Indartan.	forando
Karai.	Carlos
Lag-i-ko.	leves
Leñ.	León
Morrotxo.	moco
Morrotoketa.	mocoso
Musti.	muchacho
Mutirik.	muchachito
Odo-Mutirik.	ensangrentados
Oitira.	costumbre
Oña.	bozo
Ordun-dik.	de entonces
Perdidūnda.	Fernando
Pis.	pie
Urraturik.	rasgado
Urte.	año
Zaldi.	caballo
Zar.	viejo
Zauriturik.	lagado
Txiki-ja.	pequeño

VERSION

Jon surtija Bizkaiko leengo jama san. Pia amar-garrena. Karla leengo, bigarrena, ingarrena eta laugarrena. Ii san sasigarren Karla, Amargarren Pia hit da. Zorri bi eta iru lako. Bizka rekojo da, eta ogeiku aundija da. Ira biko eta lau ogeiko. Irus-ko eta sudi ja; amarrekua aundi ja da. Bijetan

hosta dira amar. Iruretan saipi dira ogei-eta-bi. Lau-retain bederazi ogei-eta-sani sei. Iruretan bi dira sei. Bederazi jeta iru dira ogei-eta-saipi. Etorri ba-naka; Juan irunaka. Gu gabiltza launaka. Aberriak dabilta beti irunaka. Juango gara etxera hana Eio-ritiko gara irunak. Ardiak dabilzate bosan, eta auztak sasipinan.

TEMA

Luis noveno murió. Luis octavo de Francia murió también. Carlos quinto era alto. Pio décimo vive obeso. León tres era viejo. Carlos séptimo era mozo, y Carlos séptimo era también nieto de Carlos quinto. Todos los Carlos murieron. D. Jaime es hijo de D. Carlos. D. Jaime es joven; pero será pronto viejo. Cincuenta años, entonces viejo. Fernando tercero era santo. Fernando tercero, cuarto, quinto murieron en España. Fernando primero era también bueno. Cosas de ocho unidades, 20 es de veinte unidades. El de diez y seis es diez y seis unidades. Cuatro por cinco veinte. Tres por tres nueve. Ocho por tres veinticuatro. Cinco por cinco veinticinco. Los muchachitos y los muchos vienen de dos en dos. Los viejos vienen de tres en tres. Las señoritas van de cuatro en cuatro. Los hombres andan de siete en siete. Los caballos de Antonio miden de ocho en ocho. Los caballos de Pio andan de diez en diez.

LECTURA

Gastela 'arrak etorri ziran Bizkai 'ra Bizkai' 'arrai gūla egiten, baina Bizkai 'arrak indartsuak ai-ran, eta gastela 'arrak gelitu ziran indartsuak urra-torik eta zauriturik. Gara ta gara. Bizkaja ezaten (decian) Bizkai 'arrak! Gara ta gara (vivan) gure lagi jak! eta bera (abajo) gure etai jak. Au ezaten (esto decian) gure aabak, eta gasteitar gajejak gelitu ziran ii da Arrigorri ja Bizkai 'ko berri bat da Arrigorri ja. Ordunak eziran etorri berri (de nuevo) urte batobetan. (Gara ha Bizkai ja gure abe-rrri maitia!

P. Soloeta
Profesor de la Escuela Baska

NEZKA ZAR BATI

Norbait zebela arrapatūn
Gazietan zuben pentsatū,
Baita jirak gaiturik
Ihor etzuben biltatū;
Orren ichurak mustili gūstiatū
Si sinbea ikaratzū;
Sorgitū-madama lizundu ori,
¿Zenek nauko zuben artu?
Sudarra danka ingarrija,
Dirudi achur-kirtena.
Kokotak berri ikaraten du
Donostiko jende dena;
Ile zimurra, begi sarulak,
Gorpuzia berri sei sarak,
Begarra botan dirari.
Akelariko kapitana.

11. Irudia: *Curso Segundo del Idioma Basko* egitasmoaren V. atala (*La Baskonia*)⁶⁰

Bere asmo nagusia azalduz, zeintzuk gai nagusi aztertuko dituen —funtsean, bi— esango digu: “Examinaré con detención el sistema de la subfijación, en el cual está la parte más rica y variada del euzkera [...]. En el verbo introduzco todos los nombres verbales, empiecen por consonante ó por vocal”⁶¹. Hala eta guztiz ere, arazoz eta eragozpenz beteriko bideari heldu diola deritzo, prestakuntza-urteetan ez eze, gerora ere, bere jaioterritik aparte ibili behar izan duelako. Horrezaz gainera, ez da ahaztu behar, Soloetak bere-berea ez zuen euskalki bat, gipuzkera, aukeratu zuela

⁵⁹ Soloeta-Dima, Fernando M^a: “Lecciones para una gramática baskongada. Una gramática crítica”, *La Baskonia*, 685, 1912-10-10, 4-5.

⁶⁰ *La Baskonia*, 693, 1912-12-30, 15. or. Atalen luzera aldatu egiten da, aldizkariaren zenbakien arabera.

⁶¹ *La Baskonia*, 685, 5. or.

bere *Curso* bien oinarritzat, eta horrek ere zaildu egiten zuela haren egitasmoa. Kaputxinoak apaltasunez egiten dio berba irakurleari, bere burua desenkusatu nahi bailuen:

“La tarea que emprendo está erizada de dificultades, y no soy yo el más llamado para ejecutarla con acierto. Pues, no tengo inconveniente ninguno para manifestar que el trato continuo con el extranjero me ha borrado hasta el instinto euzkérico, y pienso y hablo y escribo como quien ignora completamente el habla de Euzkadi. Y se explica el caso, con decir que abandoné mi casa paterna á la edad temprana de doce años, y desde entonces, en término de 18 años, he peregrinado en tierra extranjera y he cursado en centros que desconocen en absoluto mi idioma, y he conversado siempre en erdera. Sólo en estos dos últimos años, abandonado á solos mis recursos en medio de la dilatada pampa, privado de los más valiosos medios para el logro de mis ansias, me he consagrado á los estudios euzkéricos”⁶².

Baina gogorra da Soloeta arratiarra, ez du edozein haize-erauntsik eramango. Eta bere jaioterritik aparte dagoela emango dizkie euskarari eta euskal kulturari bere bizitzako urterik onenak. Lehenengo gramatika-atal horretan —berbaurre modura hartu daiteke, zalantza barik—, ideia nagusi bi darabiltza Soloetak: a) euskara baserritarrena ez ezik, gainontzeko jendearena ere bada; eta, b) euskara *noranhikoa* eta *jakite-hegoek goa* behar dugu, iraungo badu, hilko ez bada. Berak bere hondar alea —betebehar patriotikotzat ere badauka Soloetak euskararen aldeko lana— jarri nahi izan zuen euskararen pizkundean:

“Y si consigo realizar mi patriótico plan, siquiera sea en alguna de sus partecitas, habré cumplido con la misión de baskongado. Ya nadie podrá decir, en justicia, que los frailes alejados de la patria, nos dedicamos con entusiasmo al estudio de idiomas extraños, y que descuidamos y que abandonamos y que olvidamos el nuestro propio. No soy yo, ni quiero ser del número de euzkaldunas que desdeñan su país y hacen causa común con los asesinos de nuestra madre”⁶³.


Esanda dagoenez, *Lecciones para una Gramatika Baskongada (Curso Segundo del Idioma Basko)* horren lehen atala 1912ko urriaren 10ean argitaratu zen, eta

⁶² *Ibidem*, 6. or.

⁶³ *Ibidem*, 6. or. Lehenengo entrega horren behe aldean, ohar bat ipintzen du Soloetak, falta dituen material batzuk eskatzeko: “NOTA —La gramática baska de Lardizabal y la de Zabala están agotadas; á sus afortunados poseedores les ruego que me las quieran prestar por unos meses; las necesito para unas consultas”.

azkena 1914ko ekainaren 30ean⁶⁴. Guztira 12 atal (hitzaurrea + hamaika ikasgai) argitaratu ziren, maiztasun jakinik barik: 1912an, hitzaurrea eta sei ikasgai; 1913an, ikasgai bat; eta 1914an, 4 ikasgai. Montevideoko *Euskal Erria* aldizkarian ere, zazpi entrega argitaratu ziren (1912-12-08 / 1913-03-23), baina argitalpena etenda geratu zen.

Kontuan hartuta, Hego Ameriketako Iparraldeko euskaldun asko zegoela, eta ez zeukatela euskara ikasteko baliabide askorik, Aita Soloetak haietzako gramatika berezi bat lantzeari ekin zion: *Le Petit Basque*. Liburuaren erroka ikeragarri bat izan zen kaputxino bizkaitarrentzat; izan ere, *Ikasliak* zioskenez: “para escribir la obra ha tenido que posesionarse antes del dialecto labortano de la lengua francesa”⁶⁵.



12. irudia. *Le Petit Basque* liburuaren (1913)⁶⁶

Edizioa txukuna da⁶⁷, eta argazkiz ondo hornituta dago. Eurretari batzuk —*Aguredi* izenekoa,

⁶⁴ *La Baskonia* aldizkaria hil guztien 10., 20. eta 30. egunetan argitaratzen zen, hots, hamar egunerik behin.

⁶⁵ *Ikasliak*: “Gramática Baska”, *La Baskonia*, 726, 1913-11-30, 90. or.

⁶⁶ <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/25159Le>

kasurako— testigantza parebakoak dira, zinez. Edizioaren gastuak J. B. Vincenty *La Euskariaren* zuzendari jaunak eta “Centro Basko-Francés” etxekeko presidentea zen J. P. Passicot jaunak ordaindu zituzten. Gorago aipatu dugun *Ikasliak* biziki goraiatzen zituen euskaltzaleok: “Si estos baskos amantes de su Patria tuvieran muchos imitadores, muy pronto habíamos de ver á Euzkadi redimida”. Babesleei dedikatzen die Soloetak liburuaren: “Dédié au ‘Centre Basque Français’ de Buenos Aires pour aider à son oeuvre de propagande basque” (2. or.).

Liburuak bi zati nagusi ditu. Lehenengoak hogeita zazpi ikasgai dauzka, eta eurotan euskal aditza aztertzen da. Bigarrenean, aztergaia atzizkibidea da, eta hamabi ikasgaiz osatua da. Argazkiez gain, osagarriak ez dira falta edizio txukunean: gutunak, aditz trinkoen taulak, kantak (“Gauden gu eskualdun” eta “Altabizkarko kantua”), hiztegitxo bi, eta baita Euskal Herriaren mapa bat zazpi probintziekin ere (“Carte d’Ezkuadi”⁶⁸). Esan, bestalde, liburuaren azalean, elkarren segidan, esaldi bi idazten dituela Soloetak, haren pentsamoldea ondo ere ondo islatzen dutenak:

Non, jamais il n’y eut, ni nous l’espérons, il n’y aura de Pyrénées pour les Basques (Haristoy, IIe, 49)⁶⁹.

“Rien n’est pas plus agréable à chacun que sa patrie, et notre vraie et unique patrie est Ezkuadi”.

Urte berean, hau da, 1913an, Soloetak beste liburu bat argitaratu zuen: *Conjugación sintética del verbo basko comenzado por consonante*⁷⁰, Julio Urkixo

⁶⁷ Soloetak liburuaren “Preface” delakoan dioskenez, liburuaren ez da aurrekoaren (*Primer Curso...*) moldaketa huts bat. Irakur ditzagun haren hitzak, frantsesez: “*Le Petit Basque* n’est pas une vulgaire reproduction de la grammaire basque que nous publiâmes en Juillet dernier. Il se rapproche cependant de notre *Curso primero del idioma basko* écrit en dialecte gipuzkoan; mais nous en avons augmenté considérablement le vocabulaire, perfectionné les conversations, tout en y ajoutant un petit dictionnaire” (*Le Petit Basque*, 5. or.).

⁶⁸ *Ezkuadi*: Ez da errakuntza bat, liburuaren azalean bertan holaxe idazten du-eta. Ipartarren oguzkerara, ebakerara, hurreratzeko keinutzat hartu beharrekoa da, zalantza barik, aldaketatxoa.

⁶⁹ Abade, historialari eta idazle behe-nafarra (1833-1901). *Recherches historiques sur la Pays Basque* (1883), *Paroisses du Pays Basque au XVIII^e siècle et pendant la période révolutionnaire* (1891) eta *Jesu-Kristoren Imitazionea* (1896) dira haren liburuak ezagunenak. Soloetaren aipua lehenengo liburutik harturikoa da (Haristoy, Pierre: *Recherches historiques sur la Pays Basque*, E. Lasserre, Baiona, 1883, 2. tomoa, 49. or. (<http://www.liburuklik.euskadi.net>)).

⁷⁰ *Conjugación sintética del verbo basko comenzado por consonante*, Imp. La Euskaria, Buenos Aires, 1913. Aita Yurrek dioskenez, lehenago, liburuaren atalka argitaratu zen Buenos Airesko *La Euskaria* aldizkarian. Kurioso den arren, Pérez Aguirrek eta Pérez de Villarrealek ez dute liburu horren aipamena egiten *Escritores de la Provincia Capuchina de*

jaunari eskaini ziona: “Al desinteresado é ilustre publicista basko Sr. Don Julio Urquijo dedica estas cuartillas. – El autor”⁷¹. Bidali ere egiten dio liburua, baina deustuarraren iruzkina ez zen oso aldekoa izan:

“Según hemos visto, el Sr. Eleizalde aboga en su *Morfología* por la resurrección de las formas sintéticas de los verbos que comienzan por vocal. El P. Soloeta va más lejos y sostiene *que todo verbo conjugable perifráscicamente está en plena posesión de la sintética*.

El autor querrá, sin duda, decir *que estuvo ó que debiera estar*: porque que no lo está á la hora presente, salta a la vista.

He aquí la argumentación del entusiasta vascófilo: *El verbo expresa la acción, pasión, estado, etc., de los seres; y esa acción, pasión, etc., que pueden ser habituales y actuales expresan los baskos con su verbo auxiliado y sintético; la conjugación perifráscica representa el hábito y la sintética el acto; ahora bien, esta necesidad de distinguir el acto hábito se nota, no solo en los verbos que comienzan por vocal; sino también en todos los que comienzan por consonante; pues es sabido y es elemental en la gramática que no es necesario que el verbo comience por vocal para significar y representar el acto*.

A este argumento cabe, en primer término, contestar que la Linguística ha probado que las lenguas no se forman ni evolucionan lógicamente, sino de acuerdo con ciertas tendencias psicológicas y fisiológicas del hombre”⁷².

Era berean, Urkixok diotso Soloetari utopikoa litzatekeela forma jatorren bila, gure Erako lehenengo gizaldiraino joatea, baina utopikoa ez ezik, azientifikoa ere balitzatekeela gehitzen du: “Esta es mi opinión franca y leal”⁷³ dio Urkixok iruzkinaren amaieran, Soloetari eskeintza eta liburua biziki eskertu aurretik.


Hamar urteko tartea pasatuta, Soletak zikloa bat itxiko du, hizkuntzaren inguruko bere azken liburua argitaraturik. Kezka handia zerabilen buruan kaputxino

Navarra-Cantabria-Aragón liburuan [“**3.000 – Soloeta Iturrondobeitia**, Saturnino (Fernando de Dima)”, 474-475].

⁷¹ *Conjugación sintética...*, azala.

⁷² Urkixo; Julio: “*Conjugación Sintética del Verbo Vasco comenzado por consonante...*”; *RIEV*, 1914-1917, VIII, 176. or. Edozelan ere, Omabeitia ‘tar Karmen-ek, Brasilgo Mattogrosso-tik, biziki gorai patzen du Soloetaren liburua: “Hoy el Reverendo P. Fray Soloeta-Dima ha lanzado un grito audaz, pero lógico, un *oyu* y un *irrintzi*, que deben ser coreados por todos los escuchas de nuestros puestos y que los euzkerólogos y euzkeristas amantes de su lengua deben hacer suyos. ¡Txalo! ¡Gora! ¡Aurrera!” (“*Conjugación sintética...*”, *Euskal Erria* (Montevideo), 71, 1913-12-07, 1. or.).

⁷³ *Op. cit.*: 177. or.



13. irudia. Soloetaren *Conjugación Sintética del Verbo Basko* liburua (1913)⁷⁴


bizkaitarrak euskararen batasunari buruz; izan ere, Buenos Airesen, eta orokorrean, Argentina osoan, Euskal Herriko zazpi probintzietako euskaldunak zeuzkan inguruan; eta aniztasun hori, bai hizkuntzaren irakaskuntzan, bai hedabide idatzietan-eta, oztopo bihurtzen zen sarri. Euskaltzaindia urtetsu batzuk lehenago (1918-19) sortua zen Eusko Ikaskuntzaren magalean, eta batasunaren unea zela zeritzoten euskaldun asko eta askok. Soloeta ere iritzi horretakoa zen. Akademia sortu aurreko egoeran ere, behar-beharrezko ikusten zituen bitzuak Soloetak, hizkuntzaren batasuna eta Akademiaren sorrera:

“[...] la unificación del euzkera no consiente esperas; si hoy es posible hacerla no es prudente dejarla para mañana, y claro está que han de llevarla a cabo todos los baskófilos diseminados por todos los puntos del globo. Bueno sería, para mejor lograr este grandioso intento, que se fundase la Akademia Baskongada, siquiera con carácter provisorio”⁷⁵.

⁷⁴ Koldo Mitxelena Liburutegia

(<http://oaiprodl.gipuzkoa.net:8080/handle/10690/1207>).

⁷⁵ Soloeta-Dima, Fernando M^o: *Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos*, Tip. de La Baskonia, Buenos Aires 1922, 5.



14. irudia. Soloetaren *Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos* liburua (1922)⁷⁶

Hala ere, Soloetak urrunegi jo zuen euskarak behar-beharrezko zuen batasunaren inguruko bere proposamenen⁷⁷. Batasunaren bila atzera jo, eta balizko hizkuntza *orbangabe* bezain irreal bat proposatu zion, berez, denabeharrean zegoen euskaldunari. Horrek, jakina, kritika gordinak pairarazi zizkion proposamenok on ustean —hizkuntza hobetu guran ere bai— aurkeztu zituen kaputxinoari. Julio Urkixok aurreko liburuari egindako kritika areagotu egiten da

or. (Esanda daukagunez, *Euzkadi* aldizkariari, urte batzuk lehenago, batasunari buruz emaniko erantzun batzuk dakartza Soloetak 1922ko bere liburuaren “Introducción” atalean).

⁷⁶ Koldo Mitxelena Liburutegia

(<http://oaiproduct1.gipuzkoa.net:8080/handle/10690/1162>).

⁷⁷ Soloetak, lehenago ere, baieztapen eta iritzi gordin ere gordinak zeuzkan plazaratuta: “Sería muy de desear que los maestros en euzkerología suprimieran sin compasión y miramientos todas las variedades dialectales para dar lugar al más hermoso de los idiomas que hayan podido imaginar los mortales” (“Lecciones para una gramática baskongada en dialecto biskaino”, *Euskal Erria* (Montevideo), 105, 1914-08-02, 10. or.).

oraingoan. Izan ere, deustuarrak zehatu-zehatu egiten du arratiarra:

“En trabajos anteriores he expuesto las razones por las que considero una utopía la llamada *restauración del euskera*. No he de repetir las: pero sí advertiré que se hace difícil la discusión de estas materias con el Padre Soloeta-Dima, porque sus principios lingüísticos difieren esencialmente de aquellos admitidos hoy generalmente por los lingüistas. Si no estamos de acuerdo acerca de lo que es el lenguaje, ni acerca de las causas de su evolución, ¿cómo hemos de coincidir en la apreciación de los fenómenos que el euskera presenta? Lo que para el autor son *degeneraciones monstruosas* son para mí resultados de una evolución en la que han intervenido factores fisiológicos, psicológicos y sociales. Predender volver al *euskera ideal* o aun al euskera semi ideal, es perseguir algo que nunca ha existido. Pero aun cuando hubiera existido: ¿qué pensaríamos del castellano que quisiera volver al latín, o del inglés que quisiera resucitar la lengua que su pueblo hablaba hace mil o dos mil años? Siquiera, en estos casos; conocemos, más o menos perfectamente, como eran esas lenguas: ¿pero ocurre lo mismo con el vascuence? Ciertamente que no; y de ahí proviene el que cada autor dé rienda suelta a su fantasía y llegue a las soluciones más inesperadas, como sucede al propio profesor de Euskal-Echea”⁷⁸.

Bide beretik, Aita Aingeru Madariaga bermeotarrak ere, uste du urrun ere urrun joan zela Soloeta bere proposamenen⁷⁹:

“El erudito y cultísimo autor, que ya nos era conocido [...], presenta en esta obrita una teoría verdaderamente revolucionaria para la solución del problema de la unificación de dialectos vascos. Para él nuestra lengua *es un idioma ideal en sí mismo, y deficientísimo en sus dialectos*. El euzkera actual no es tan uniforme, ni lógico como se ha pretendido... ¡Cielos! ¡Qué confusión y desorden han precedido a la conjugación de nuestro verbo!...

[...]

Si yo me creyese autorizado a dar consejos a nadie, no vacilaría en dárle uno al ilustre profesor de Euskal-Echea, diciéndole que no fuese tan pesimista respecto al estado actual de nuestra conjugación, y que ahondase

⁷⁸ Urkijo, Julio de: “Bibliografía: Ensayo de la unificación de dialectos baskos...”, *RIEV*, XIII, 1922, 666. or.

⁷⁹ *La Baskonia* aldizkariak aipatu egingo du Madariagaren artikulua, baina testutxo bat gehituko du Soloetaren defentsan (Erredakzioa: “Euskerología”, *La Baskonia*, 1.074, 1923-06-30, 475. or.).

más en su estudio; ¡más todavía! ya que no le falta para ello ni erudición ni talento, pero basándose en otros principios”⁸⁰.

R. M^a Azkue handiak artikulu luze eta mamitsua eskaini zion Soloeta-Dimaren proposamen ausartari. Azkuek pentsatzen du, berak gaztetan —*Euskal Izkindea* argitaratu zueneko garaiari dagokio— pairatutako gaixotasun berak jo zuela Soloeta-Dima *Ensayo de unificación...* liburua egitean. *Txukuneria*⁸¹ deritzo gaixotasun horri, eta izenburu horixe jarriko dio *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen artikuluari⁸². Estu ere estu hartzen du hasieratik *Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos* liburua:

“Beronen orriak irakurtzen asi ta laxter, erdi aspertua nintzalarik, neronen buruari galde au egin nion: *¿Zer dala-ta bizkarreratu otedidate lan au irakurtzeko arloa neri, onelako asmotarako zaletasunik ez tudan oni?* Erantzunik etzetorkidan. Beste orri banaka batzuren berri artu nuenean, parririz erantzun au eman nion lengo galde orri. *Ik ere gaztetxo intzanean iren zainetan ta batez ere lumatxoan txukuneria izan uelako eta baztanga bein izan duenak bigarrenez izaten ezomenduelako, orrengatik eman diatek eriar-teko eginkizun au. Ezadi ordea beldur izan, ezadi kikildu, eri onezaz ezaiz ilko ta ekiok gohoz lanari, ta lanari gohoz ekin diot*”⁸³.

Zehatz ekin ere. Izan ere, hogei bat orrialde zirriborratzen ditu Azkuek Soloetaren lana iruzkintzeko. Badaki baina, kulpak eta erruak partitzen, bere buruarengandik hasita:

“Euskalari berrizale txukuneridun-artean urrutiren yoan zaiguna A. Soloeta dela uste dut. Orretarako dituen kemena ta zaletasuna aundiak izanarren, etzen noski bide legunetik hainbeste irtengo, aurretikoak izan ezpalitu: nerau bat, nerekin bateratsu besteren bat eta arren ondoren eli osoa, berrizale-mordo andi ugaria”⁸⁴.

Amaitzeko, ikus dezagun nola burutzen duen Azkuek bere iruzkina, kritiko beti ere, baina itxaropen batekin, hots, Aita Soloetak aldatu egingo dituela bere irizpideak, eta bere *hodeitik* lurrera jaitsirik —ironia darabil Azkuek oraingo honetan—, garaiko ikerlerro nagusietara hurbilduko dela. Bera prest legoke holako obrak iruzkintzeko, hitzaurreak egiteko, eta, behar izanez gero, idazlea atseginez goraiatzeko ere:

“Onelako lan bat burutik burura eramateko ¿zer bear da? Gogaldi ona (umore ona) aurrenik, astia ere bai, gainera odeitan bizi ta azkenez A. Soloetak duen buru argi ta asmutsua. Bizkaieraz esan oi dugunez, dabeneri dabena: *suum cuique*. Buenos Airesko euskal irakasleak gutuntxo onetan guk ederretsi ta aintzat artu ezin ditugun irakaspen asko agertuarren, lan onak izan ditzakean sustrai mamitsu ekarkorra ere badarakusku. Asko irakurri du, euskerazko ta euskereazko lan, beredin izkeratan egindako lanak ezagunak zaizkio. ¡Ots!

Nik ere nere txukuneria utzi nuen ta bera ere, eri ori utzita, sendatu bedi, ta ar beza berriz ta berriz eskuetan bere egatsa (idazkortza, luma) eta nik neronen aldetik bere lan berri sendo sakon oriek eta beren egilea goratzeko itzaurretxo bat edo beste atseginez egingo nuke”⁸⁵.

Ez zen erraza izango, ez zitzaion Soloetari erraz egingo holako kritika eta iruzkinak irentsi beharra. Kontua da, zergatik edo hargatik, *mututuz* joan zela dimoztarraren luma zolia. Badago, hala ere, ohiko bibliografiatan aipatzen ez den ekimen bat: *Lecciones para una Gramática del Euzkera Bizkaino* artikulu sorta, hain zuzen ere. 1914ko abuztuaren 2an hasi zen gramatikatzko hori argitaratzen, eta 1916ko urtarrilaren hamarrean eten zen argitalpena, maiztasun aldakorra izan zuelarik. Guztira, 17 ikasgai argitaratu zituen (105.-171. zb.), eta sarreran esaten duenez, Montevideoko *Euskal Erria* aldizkarirako eta Buenos Airesko *Euzkotarra* astekarirako atondu zituen ikasgaiok, eskusiban prestatu ere:

“Antes, empero, de presentar mi reforma [batasunaz ari da] a la consideración de los entendidos y desterrar los diversos dialectos, considero de deber dedicar un cariñoso y filial recuerdo al primer idioma que balbuceé en las montañas de Bizcaya. He escrito gramáticas baskongadas en Gipuzkoano, Labortano, y justo y razonable me parece que se conceda al euzkera bizkaino su correspondiente lugar al lado de los demás euzkelgis que se hablan en otras comarcas de Euzkadi”⁸⁶.

⁸⁰ Fr. A. de Madariaga: “Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos...”, *Aranzazu*, II, 1922, 208-209.

⁸¹ “Enfermedad de purismo” modura itzultzen du Azkuek berak.

⁸² Azkue, R. M^a: “Txukuneria”, *Euskera*, VI, 1925, [3]-21.

⁸³ *Ibidem*: 4-5.

⁸⁴ *Ibidem*: 14-15.

⁸⁵ *Ibidem*: 21. or.

⁸⁶ P. Soloeta: “Lecciones para una gramática baskongada en dialecto biskaino”, *Euskal Erria* (Montevideo), 105, 1914-08-02, 10. or.

7. Txile-Argentinetakoa kaputxinoen Nagusi

Ensayo de la unificación de los Dialectos Baskos liburua argitaratu, eta hurrengo urtean nagusiek Txile-Argentinetakoa —orduan kaputxinoentzat probintzia bakarra zen— Nagusi izendatu zuten⁸⁷. Ardura horretan hiru urte inguru eman zituen Aita Soloetak, eta Aita Yurrek dioskunez, “aren aomena zabaldu egin zan Ordena barruan”⁸⁸. Hiru urteko hori pasatuta, Txile-Argentinetakoa Aholkulari izendatu zuten, baita Buenos Aires / Nueva Pompeya-ko Nagusi eta parroko⁸⁹. Nueva Pompeya-ko komentua eta ikastetxea probintziako inportanteenak ziren orduan; eta, era berean, hango Andra Mari basilika Argentinako ezagunenetako bat zen. Hamairu urtez irakasletzan jardun ondoren, erantzukizun berriak bereganatu zituen Soloeta irakasle-idazle kaputxinoak.


Bost urteotan (1923-1927), ordenan, goren mailako ardurak izanda, asti gutxi geratuko zitzaiokeen Soloeta Aitari idazluma saiakera, ikerketa eta holakoetan dantzatzeko. Urteotan, hutsunea nabarmentzen da haren bibliografian. Hala ere, esan behar da, kaputxinoen *Nueva Pompeya*⁹⁰ aldizkariaren zuzendaria izan zela, kaputxinoen komunitateko Nagusi izan zen tarte horretan, orduko haren artikulurik ezin izan dugu batu baina.

⁸⁷ Badirudi, euskaldun askok ez zutela begiz onez ikusi izendapena, kaputxino euskaldunak eginiko lan eskerga kolokan gera zitekeen-eta. Hona hemen, zer zioen *La Baskonia* aldizkariak aipatu izendapenaz: “Singular extrañeza ha de causar a muchos, como causó a nosotros, la partida a Santiago de Chile del Rvdo. P. Fernando de Soloeta, para ponerse al frente de la dirección del establecimiento de enseñanza que en aquella ciudad cuenta la comunidad capuchina, dejando la Euskal Echea, donde su actuación era tan conveniente. Deberían haberse realizado gestiones para que el P. Soloeta no se trasladara, por tratarse del profesor que más netamente encarnaba la naturaleza euskérica de la institución referida y que mayor dedicación consagró pacientemente a la enseñanza y cultivo de nuestro sabio idioma, desde que se inauguraran las clases hasta el presente. [...] Por eso lamentamos mucho la ausencia del Padre Soloeta, porque por su probado baskongadismo y por el dominio de nuestro idioma, su presencia se hace indispensable en los Institutos de Euskal Echea, cuya enseñanza debe responder al título y finalidad para que fueron creados” (“Notas Locales. Baskófico que no debió ausentarse”, *La Baskonia*, 1092, 1924-01-30, 195-196).

⁸⁸ “Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 137. or.

⁸⁹ “Procedente de Chile, donde se encontraba hace dos años, acaba de llegar a esta capital el ilustrado P. Soloeta para ejercer el cargo de Superior de la orden capuchina de Nueva Pompeya. Mucho celebramos la nueva designación del distinguido amigo y colaborador que con tanto cariño como talento ha contribuido a la obra baskofilista que se viene realizando en América” (“Notas Locales. El Padre Soloeta”, *La Baskonia*, 1.187, 1926-09-20, 554-555).

⁹⁰ Aldizkaria 1924an sortu zen, eta oraindik argitaratzen da, 21. oharrean ikus daitekeenez. 90 urte bete ditu, beraz.



15. irudia. Aita Soloeta-Dima⁹¹

“Baña biotzean etxakon laket, Nagusia izatea” diosku Yurre arratiar kaputxino lagunak⁹². Haor, Soloetaren izaeraren beste ñabardura garrantzitsu bat. Ez zuen luzaro iraun erantzunkizun handiko ardurotan. Izan ere, 1927. urtearen azkenetan, itzuli bat egin zuen bere jaioterrira, amari eta anaia kaputxinoei bisita bat egiten (kaputxinoetan sartu berritan hil zitzaion Soloetari aita)⁹³, eta ez zen berrito itzuli Argentinara⁹⁴. Edozelan ere, bere *nazionalitate berria* —argentinarra baitzen pasaportez— estimu handitan izango du beti;

⁹¹ *Zeruko Argia*, 182, 1934-ots., 229. or.

⁹² “Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 137. or.

⁹³ “Uno de estos días partirá para nuestro país el estudioso y distinguido filólogo P. Soloeta, Director de la Comunidad de Capuchinos de Nueva Pompeya. El principal motivo de su viaje es el de ver a su venerable madre, anhelo que hace mucho tiempo acariciaba. El Padre Soloeta, con quien nos unen estrechos vínculos de espiritualidad baskófila y que tan conocido y admirado es de nuestros lectores, nos ha prometido enviar algunas impresiones que recoja en el solar nativo. Le deseamos un feliz viaje” (“Notas Locales. El Padre Soloeta”, *La Baskonia*, 1.217, 1927-07-20, 467. or.). Ez dakigu, Aita Soloetak kolaborazio horiek bidali zituenetz. Guk, behintzat, ezin izan ditugu idoro.

⁹⁴ Natividad Baylac-ek honela kontatzen du une hori: “En 1928, siendo Superior y Párroco de Nueva Pompeya, aprovechó sus vacaciones para ir al País Vasco. No volvió más a nuestra Patria: partió para China a predicar, en nombre de Dios, la Verdad y la Fe. Para cumplir con éxito su sagrado ministerio, aprendió el chino en una gramática escrita en alemán, mientras viajaba hacia el nuevo destino que voluntariamente se había impuesto” (*Euskal Echea. Su obra a través de 50 años, 1904-1954*, 112. or.).

eta, zibilez, argentinartzat agertuko du bere burua nahinon.

Euskal Herrian zegoela, Euskaltzaindian ere egon zen euskal akademiak gonbidatuta⁹⁵, eta badirudi —Azkuek eta abarrek aurreko urteetan eginiko kritikak gorabehera— oso gogorapen ona geratu zitzaiola dimoztarrari. Era berean, Soloetak aprobetxatu egin zuen Euskal Herriko aldia bere eskutara heldutako sermoi bilduma baten berri emateko. Izan ere, fraile karmelita batek eman zion bilduma hori Soloetari, eta honek, dokumentuaren balioaz jabetuta, kaputxinoen Donostiako bibliotekarioari, Tolosako Bernardino Aitari, eman zion, inprentarako bidean jar zezan. Ez dago daturik eskuizkribuaren egileaz, ezta idatzi ziren lekuaz ere. “Sucedía esto —diosku Aita Frantzisko Ondarra kaputxinoak— a fines del año 1927 o primeros de 1928”. Informazio hori Aita Julian Yurrek luzatu zion, gerora euskaltzain oso izango zen Aita Ondarrari; eta honek, 1978-1979 urteetan, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian aztertu zituen platika horiek⁹⁶.

Egotaldia Erromara joateko ere aprobetxatu zuen Soloetak, eta itsasoaz honaindi emaniko hilabeteotan —badirudi, Txinan egondako lehenengo bi misiolari euskaldunekin ere hitz egin zuela hemengo aldia— sortu ei zitzaion Soloetari Txinara misiolari joateko guraria, baita nagusiek baimena eman ere. Ezustea ez ezik, tristura ere sortu ei zuen erabaki horrek Argentinako lagunen artean: “Ameriketako negarrez daude etxeko ta kanpokoak ain Aita onak iges egin dielako. Aren biotz aundiaz, aren buru argiaz, eta aren xalotasunaz eztaude aztuta”⁹⁷.

8. Ekialdera: Kansu, Txinako misiorik pobreena⁹⁸

Azkenean, 1928ko maiatzaren 1ean, bakarrik, Genevako portuan untzia hartu, eta Txina aldera abiatu zen Aita Soloeta, kaputxinoek Gansu probintziako Pingliang eskualdean zeukaten misio pobrera (ikus 16. irudia):

“Jorraillaren 15´ean atera zen bere erritik. Orrillaren 1´an Genova´tik. Egun auetantxe sartzen da Txinan. Beste igazko zazpi lagunak ainbat ikusi zuten lapurrekin eta... baño


⁹⁵ Donostian, 1928ko martxoaren 29 eta 30ean, eginiko bileretan egon zen Soloeta (*Euskera*, 1930 ilbeltza-epailla, 50-51). Euskaltzaindiaren dokumentuetan agertzen denez, euskal akademiak 1920an izendatu zuen euskaltzain urgazle Aita Soloeta (Euskaltzaindia: “Euskaltzainen izendegia. Gerraurreko aldia”, *Euskera*, XVI, 1971, 247-250).

⁹⁶ Ondarra, Frantzisko: “Manuscrito de pláticas en euskera guipuzcoano en los Capuchinos de San Sebastián I”, *FLV*, 30, 1978, 524-546 // II, *FLV*, 31, 1979, 91-119.

⁹⁷ “Aita Dima Txinara bidean”, *Zeruko Argia*, 116, 1928-abuztua, 311. or.

⁹⁸ Izenburuan, Rafael de Gulina-ren *Kansu la Misión más pobre de China* (B. Aires, 1944) liburuari egin nahi izan diogu erreferentzia.

misiolari andi au ezto ezerk bildurtzen. Jaunak bere itzal gozoa emango diola gaude, Beragatik ain neke gogorretara bere burua daraman Aita Dima´ri”⁹⁹.



16. irudia. Txina, Gansu probintzia eta Pingliang eskualdea

Berrogeita zazpi urte zeukan orduan Soloetak. Kaputxino lagunek diotenez, artean gizon gogorra zen, sasoiko eta osasuntsua. Baina, har dezagun berriro bidelagun Aita Yurre, ordurako Pingliang-en zegoena, berak eman diezaguke-eta inork baino hobeto Soloetaren periploaren berri. Izan ere, harrituta utzi ditu hango denak arratiarraren kemenak eta indarrak:

“Dima´ko Soloeta Fernando Aita, nire Arratiar-kide txit agurgarria, dala ia illabete bat, emen degu gure artean.

Auxe da mutilla, auxe! Guziok arriturik gaude. Txina barna bakarrik ibilli-ta,

⁹⁹ “Aita Dima Txinara bidean”, 311. or.

Religiosos de la Provincia de Navarra que están en el Vicariato por orden de su llegada a la Misión:

- R. P. Gregorio de Aldaba, en Chengyuen.
 » » Andrés de Lizarza, en Pingliang.
 » » Simón de Bilbao, Kingyano.
 » » Tarsicio de Villava, en Chauschen
 » » Julián de Yurre, en Chengyuen.
 » » Fulgencio de Bargota, en Sifeugchen.
 » » Rafael de Gulina, en Kiagchow.
 » » Fernando de Dima, en Kingchow.



17. irudia. Aita Soloeta-Dima, Gansuko anaia kaputxinoekin. Ezkerretik hasita, lehenengoa dugu¹⁰²

ain laster ta ain ongi gure artean agertu zaigulako. Auxe da mutilla izatea, auxe!

Guk, azkenez etorri geran bost mixiolari berriok, Txina'n hogeitau urte egin dituan mixiolari zar bat izan genduan bide-erakusle ta zuzendari. Alaz ere or ibilli giñan lau illabete baño gehiago ibilli ta ibilli, Jaungoikoak dakien eran.

Soloeta Aitak ordea erdi-bakarrik egin du bide guzia, bi illabetetan eldu zaigu. Ongi etorri!¹⁰⁰

Poz-pozik agertu ei zen misioan, bertako lagunek hara joango zenik ez zekitela. Hara heldu, eta berehala lotu zitzaion lanari. Ekinean beti, uneoro beharrean aspertzeke. Pingliang eskualdean misio-leku berriak ere sortu zituen Soloeta misiolariak, nahiz eta horretarako lan neketsu ere neketsuak egin behar izan:

“Misio-leku barriak idegi ebazan; bidealdi luze ta neketsuak egin, kristau-sendiak ikertzen¹⁰¹; ta leku urrin ta oianetako lur-zulo ta bizi-tokietan igesiak ziran kristau-sendiak

topeu ta topeu ibilli, egun asko ta luzeetako bidealdiak egiñaz.

[...]

Naiko da yakitea, txinatarrak eurek, naiz kristauak, naiz kristau etzirenak, begirune ta itzal andia eutsoela. Batez be, kristauak maite-maite eben¹⁰³.

Pingliang-eko misioa handi ere handia zen, gure parametroak kontuan hartuz gero, behintzat —Txinaren eta Gansu probintziaren tamainaren aldean, ostera, ez, jakina—. Misioaren hedadura 54.005 km koadrokoa zen¹⁰⁴, eta bi milioi biztanle inguru zeuzkan Soloeta han egon zen garaian. Zazpi misio-etxe nagusi zeuzkan —euren txikian, beti ere—, eta hainbat misio-etxe txiki. Hogeita hamarreko hamarkadaren lehenengo urteetan, Pingliang-en, misio-buruaz aparte (Aldaba'tar Gregorio), 12 aita kaputxino zeuden (denak Euskal Herriko semeak), hiru anaia eta hamar moja. Katekistak

¹⁰⁰ Aita Yurre'tar Julian: “Txinatik”, *Zeruko Argia*, 122, 1929-otsaila, 28. or.

¹⁰¹ Ikertu: bisitatu (gure oharra).

¹⁰² *Verdad y Caridad*, 67, 1929-10-15, 338. or.

¹⁰³ “Dima'ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 138. or. Aita Yurrek dioskunez, Erromako *L'Osservatore Romano*-raino heldu ziren Aita Soloetak egindako lanen oihartzunak, kaputxinoen nagusiek bidalita.

¹⁰⁴ Euskal Herriko zazpi probintzien hedadura 20.947 km koadrokoa da.

zortzi ziren, eta irakaskuntzan hamar maisuk eta hamazazpi maistrak ziharduten¹⁰⁵.

Soloetak baina —*zarrago eta ameslariago*—, ohiko zeregin erlijiosoetatik aparte ere, nekaezin dihardu lanean Gansu hegoaldeko misioan, anaia kaputxinoak harrizteraino. Ameriketako aldiko azken bost urteetan Txile-Argentinetan kargu, ardura eta izendapen handiak izandako kaputxinoak ez dauka inolako eragozpenik lanik xumeenetan ere aritzeko:

“Arriturik gauzkana Dima’ko Perrando Aita da. Au da mixiolaria! au. Berrogei ta amar urte kolkotan eta ala ere ogeita amar urteko mixiolari baten antzera trinko eta langille. Ille txuriak buruko ametsak uxatzen omen ditu, baño ez mixiolari trebe orrenak. Zarrago eta ameslariago. Joan dan urtean mixio etxe zabal bat erosi du eta edozein langille bezela an egon da etxea konpontzen: Isidro anaiak kisuskil lana egin ta Perrando aita *morteroa*, arriak eta abar erakarri orma gañera, gure Aita Prantzisko Deunak San Damian’go eleiza eratzekean bezela. Ori dena gutxi izan balitz bezela, tarteka ezin esan alako bideak egin ditu, alde ayek goitik bera erabilliaz eta ibillaldi oyetan eundik gorako kristau kabi eder bat aurkitu du, beste alde batzuetatik toki ayetara egatuz. Bide guzti oyek oñez egin bear izan ditu, bideak lapurrez josita zeudelako. Gazteok badugu nun eta zer ikasi franko”¹⁰⁶.



Txinako egoera politikoak baina, zeharo baldintzatuko du bertan zeuden misiolari euskaldunen egoera. Armada komunista Gansu-raino heldu da, eta kaputxinoek mehatxatuta ikusten dute euren burua. Tamalez, susmoak eta beldurrak egia bihurtzen dira. 1933ko azaroaren 25an Garex’ko Bartolome anaiak eskutitz bat bidaltzen du kaputxinoen Iruñako komentura: “Txina’ko lapurrak [komunistak] illabete onen 12’an arrapatu ginduzten Dima’ko Perrando Aita, Artazkoz’ko Isidro Anaia eta nerau”¹⁰⁷ (ikus 18. eta 19. irudiak). Aita Yurreren arabera, atxiloketa gertatuaz batera, Aita Soloetak eskaera adoretzu bat luzatu zien komunisteei, haren izaera eskuzabala ondo ere ondo erakusten duena: “Soloeta Abak arren esan eutsien *gorriei*, beste biak uzteko; eta norbait eroatekotan, bera bakarrik eroateko”¹⁰⁸.

¹⁰⁵ Erredakzioa: “Misioak. Pinglian’go gure misioa”, *Zeruko Argia*, 172, 1933-apir., 68-70.

¹⁰⁶ Arbizuko, Pelis A.: “Txina’tik”, *Zeruko Argia*, 174-ekaina, 100-101.

¹⁰⁷ Garexko Bartolome A.: “Gure misiotegiko estatusunak. Aita Perrando Dima’koa nola arrapatu zuten”, *Zeruko Argia*, 182, 1934-ots., 229-231.

¹⁰⁸ “Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 138. or



18. eta 19. irudiak. Bahitutako hiru misiolariak soldadu komunistekin, haien gordelekuan. Goiko argazkian zerbait jaten, eta behekoan atsedena hartzen¹⁰⁹

Komunisten asmoa, antza, dirua ataratzea baino ez zen, eta beren-beregi adierazi zieten kaputxinoei zer egin behar zuten: “Gu zuen erlijioaren etsai gera, baño pixkat laguntzen ba’diguzue, lasa utziko zaitu[e]gu”¹¹⁰. 1.500 pezetan hitzartu zuten liberazioa, eta Soloetaren lagun biak joan ziren diruaren bila, dimoztarra komunistekin eta beste atxilotu batzuekin geratzen zelarik. Biharamunean, diruarekin itzuli, eta eman egin zieten soldadu komunistei, baina hauek Soloeta aita askatu nahi ez, eta eurekin eraman zuten: “Lapurrak gure Bizkaitar maitea berekin dutela urrutiago iges egin dute eta eztakigu non dauden. Illaren 25 garrenean Aita Perrandoren berririk eztugu. Teresatxo donearen mirariz ezpada; eztago iges-biderik”¹¹¹.

¹⁰⁹ Gulina, Rafael de: “Desde el Kansu”, *Verdad y Caridad*, 128, 1934-11-15, 341-344 (Soloetak jantzi argia dauka; Bartolome eta Isidro anaiak abitu iluna daukate).

¹¹⁰ “Gure misiotegiko estatusunak...”, 230. or.

¹¹¹ *Ibidem*, 231. Atxilotze horren inguruan, oso pasadizo polita kontatzen du Fr. Miguel de Pamplona kaputxinoak. Izan ere, Huescako Jaca herrian, elizkizun baten ostean, Tomásín Buesa izeneko ume batek zera esan omen zion: “Como hemos leído [*Verdad y Caridad* aldizkarian] que los ladrones de China han tomado preso a un Capuchino, queríamos librarlo. [...] Es solo una peseta con cuarenta y cinco céntimos... ¿Sabe?, este [laguna] y yo hemos hecho una rifa entre los amigos y hemos sacado eso” (Fr. Miguel de Pamplona: “El chico promete. A mi querido P. Fernando de Dima, misionero en el Kansu (China)...”, *Verdad y Caridad*, 120, 1934-03-15, 94-95).

Azaroaren 12tik urtarrilaren 7ra arte eduki zuten komunistek atxilotuta Soloeta, harik eta soldadu erregularrek Soloetaren taldea inguratu arte. Estualdi horretan, komunistek ihesari arin-aringa eman, eta Soloeta libre geratu zen. Pingliang-era, 35 soldadurekin bueltatu zen, haiek zaintza bertan egiteko (ikus 20. irudia). *Oraindik zauriak etzaizkio sendatzen; baño ondo dijoa*, zioen Tolosako Aita Pedro Bautistak, urtarrilaren 15ean Iruñara igorritako gutunean¹¹². Zorionez, artikulua berean, azken orduko ohar modura, liberazioaren berri ematen zuten Iruñeko kaputxinoek:

“BERRI POZGARRIA. Ilbeltzaren 13’an gure Txina’ko Misiotegi’tik, kablegrama au biali ziguten: *Iruña’ko Kaputxinoak: AITA PERNANDO ASKATURIK*.

Te Deum abestu genuen pozaren-pozez gure etxe guztietan berri ori artzean. Biramonean egunariak berri au zekarten: *Pekin’dik Fides bilgurari telegrafiatzen diote Aita Fernando Soloeta, len Txina’ko lapurrak lotua, erriko-gudu-gizonak oraintxe askaturik gelditzen dala. Aita Soloeta Kaputxinoa ta Naparro’ko Probintzitarra da; Pingliang Kansu’ko Misiotegian dagoana da.*

Poza artzeko aña ba-dugu. Onetsia izan bedi beti gure Jaungoikoa!”¹¹³.

Zeruko Argiako artikuluan esaten denez, Soloetak ez zuen baimenik eman eskutitza argitaratzeko —Soloetak berak eman nahi izan zuen berria—, baina berriaren garrantzia kontuan harturik, Iruñeko kaputxinoek argitara ematea erabaki zuten. Edozelan ere, bolo-bolo barraiatu zen berri hori orduko hedabideetan. Madrillgo ABC egunkariak honela ematen zuen liberazioaren berri 1934ko urtarrilaren 14an, hots, Tolosako Aita Pedro Bautistaren gutunaren dataren bezperan:

“Ciudad del Vaticano 13, 9 noche. Telegrafían de Pekin a la agencia Fides que el Padre Fernando Soloeta, que había sido capturado por los bandidos chinos, acaba de ser puesto en libertad por las tropas regulares.

El Padre Soloeta es capuchino y oriundo de la provincia de Navarra. Está de misionero en la Prefectura Apostólica de Pingliang, en el Kansú”¹¹⁴.

Gerora, Tomasín umea Tomás Buesa bihurtu zen, hizkuntzalari eta historialari ospetsua berau. Hil zenean, 1994an, Jacako *El Pirineo Aragonés* aldizkariak beren-beregi aipatzen zuen pasadizoan, hil berriaren gorazarrean (Cajal, M^a Luisa: “Hasta luego Dr. Buesa (I)”, *El Pirineo Aragonés*, 2005-01-07, 13. or. // www.elpirineoaragones.com).

¹¹² “Txina’tik. Bi illabetez komunisten eskuetan”, *Zeruko Argia*, 184, 1934-apir. 260-261.

¹¹³ “Gure misiotegiko estatusunak...”, 231. or.

¹¹⁴ Ferretti: “Misionero español en libertad”, *ABC*, 1934-01-14, 44. or. Bide beretik, New York-eko *Ballston Spa Daily Journal* egunkarian; baina, kasuon, beste bost eliz gizonekin batera aipatzen da liberazioa, hilabete geroago: “[Father

Atxiloaldian pairatutakoak eta bertan ikusiak liburu baten kontatu zituen Soloetak, 1934. urtean bertan, ordenako nagusien enkarguz —aginduz— egin ere. Liburua erdaraz burutu zuen eta Argentinan argitaratu zen: *Mi cautiverio bajo el Dragón Rojo: (Dramático relato de un Misionero Argentino) / Memorias del R. P. Fernando Soloeta de Dima, Misionero Capuchino en Kansu, China*¹¹⁵.



20. irudia. Aita Soloeta, gobernuko soldaduen agintari batekin¹¹⁶

Polikarpo Iraizoz kaputxino nafarrak itzulpena egin, eta argitaratzen hasi zen, atalka, Iruñeko *Zeruko Argia* aldizkarian. Argitalpena 1935eko uztaillean (199. zb.) hasi zen, eta Espainiako gerrak ankerki moztu zuen. Argitaraturiko azken atala 1936ko uztailkoa (211. zb.) dugu. Guztira, 1-112 orrialdeak argitaratu ziren, baina Soloetaren obra osoa zeukan itzulita Iraizozek¹¹⁷.

Esteban Jesuit] The others are Father Avito Jesuit, captured as long ago as May 1930, in Anwei Province; Father Von Arx, Swiss Vincentian, taken in Kiangsi in October 1930; Father Paly, Swiss Dominican, taken in Funkien Province in August 1933; and Father Soloeta Spanish Capuchin, captured in Kansu Province in October 1933” (Goette, Jon: “Chinese Reds Have Kidnaped 6 Missionaries”, *Ballston Spa Daily Journal*, New York, 1934-02-13, 4. or.).

¹¹⁵ Soloeta, Saturnino (Fernando de Dima): *Mi cautiverio bajo el Dragón Rojo*, P.P. Capuchinos, Nueva Pompeya, Buenos Aires, [1934], 122 or.

¹¹⁶ “Txina’tik. Bi illabetez komunisten eskuetan”, 260. or.

¹¹⁷ “El ejemplar que se encuentra en la Biblioteca de Escritores de la provincia de Navarra-Cantabria-Aragón (Pamplona), posee las páginas 113-245 dactilografiadas. Están tomadas del original que se encuentra en la biblioteca de Lecároz (Navarra). Son fotocopias.” (*Escritores de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón*, 474-475).

“Zeruko Argiaren Izpiak” liburu-bildumako hirugarrena zen Iraizozen itzulpena, eta, bere apalean, oso edizio txukuna dela esan beharra dago¹¹⁸ (ikus 22. irudia). Orain, badaukagu Ainhoa Beolak egindako edizio berri bat sarean, *Zeruko Argian* argitaratutakoa batzen duena: *Lapurren menpean*¹¹⁹.



21. irudia. Soloetaren liberazioaren berri, Brasilgo egunkari baten¹²⁰

Liburu horren inguruan, komentariotxo batzuk egiten ditu Aita Julian Yurrek. Alde batetik, goraipatu egiten du Aita Iraizozen itzulpena¹²¹; baina, badirudi, Iraizozek erabilitako testua, originalaren aldean zerbait aldatuta zegoela: “Egiazko paperak ikusi be, ez bide zituan ikusi”, diosku Aita Yurrek¹²². Beraz, baten batek aldatu egin zituen pasarteren batzuk Soloetari ez baimenik, ez iritzirik, eskatu barik, eta horrek sumin handia eragin zion misiolari bizkaitarrari: “Gizon ixilla zan; ondo sufritzen eban; baña badakit, etzegoela pozik, norbaitek aldatu egin eutsolako liburua, gauza batzuk

kenduz eta beste batzuk ipiñiz”¹²³. Baina, ikus dezagun zelan hasten duen liburua Soloetak, eta zer diotsion irakurleari; izan ere, “Irakurleari” du izenburu liburuaren hitzaurreak:

“Ez uste izan, irakurle maitea, nik liburutxo au nere gogoz idatzi dedanik, ez orixe. Nere gogoaren bortxa jarri naiz ortara. Nere adiskide maiteak lapurren artean egon nintzanean ikusitako gauzetaz zerbait idazteko eskatzen zidaten bein ta berriz ta askotan, gogait egiterañoan; baña nik guztiai ezezkoa ematen nien. Ilbeltzean (1934) gelditu nintzan lokabe (libre) eta maiatzera arte ez nuen ortaz itzik ere idatzi. Orduan nere Nagusiak bitarteko jarri ziran eta Nagusiak Jainkoaren ordezkokoak baitira neretzat, aien esanera erori nintzan nai banuen ta ezpanuen

Orrialde auetan kontatzen diranak ixil ixil iñork jakin gabe gelditu balira, naiago nukean; alde batetik, zuretzat bat ere jakingarriak ez dirala uste nuelako, bestetik berriz, bear gabeko gauzarik egin bear ez dalakoan nagoelako. Nire lantxo au argitara ateratzen bada, ori idazteko ta ateratzeko agindu didatenen kontura agertzen da. Beste atxilo (preso) egondako misiolarien idazkirik ez det irakurri; baña aien aldean nere idazki au motela, utsa eta ezereza izango zaitzula etsirik nago”¹²⁴.

Beraz, gauza bi leudeke egiteke Soloetak gogoz kontra egindako liburu honen inguruan: batetik, Iraizozen itzulpena oso-osorik argitaratzea; eta, bestetik, liburuaren bertsio jatorra topatzea, egindako aldaketak eta gehiketak antzeman ahal izateko. Soloetari justizia apur bat egingo litzaioke —zor zaiona, beste alderdi batetik—, hori lortuko balitz.

Txinako misioetako penak eta lorrak baina, ez ziren amaitu Soloetaren liberazioarekin: “1933 ta 1934 t. a., gorri areik zapalduak egozen; baña etziran geldi egoten”¹²⁵. Urte bereko (1934) azaroan, *Zeruko Argia* aldizkarian, haren artikulutxo bat agertzen da izenburu kezkgarria zeramana: “Txina’tik Berri Txarrak”. Hona, zer kontatzen zuen misiolari kementsuak:

¹¹⁸ *Lapurren menpean: Erensuge-Gorriaren soldadu-taldean atxilo egondako Misiolari baten oroitzapenak* / Egilea: Dima-ko Soloeta Fernando, A., O.F.M. Cap., Txinako Misiolaria; Euskeratzaldea: Iraizoz-ko Polikarpo A., O.F.M. Cap., [Imprenta de Capuchinos, Pamplona, 1934], 245 or.

¹¹⁹ Armiarma (Klasikoen Gordailua): <http://http://klasikoak.armiarma.com/pdf/IraizozLapurren.pdf>.

¹²⁰ *Correo Paulistano*, Rio de Janeiro, 1934-02-23, 8. or.


¹²¹ “Geroago, Iraizoz’ko Polikarpo Abak itzuli eban euskerara, ondo-ondo, berak bakarrik dezaken legez...” (“Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 139. or.).

¹²² *Ibidem*, 139. or.

¹²³ *Ibidem*, 139. or.

¹²⁴ *Lapurren menpean* [A. Beloaren ed.], 5. or.: <http://klasikoak.armiarma.com/pdf/IraizozLapurren.pdf>.

¹²⁵ “Dima’ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 139. or.



22. irudia. Lapurren menpean, Aita Polikarpo Iraizozen itzulpena¹²⁶

“Pingliang, Yututchen, Kingchow ta beste aldetan bake ederra dago agi-danean; ta argatik onerako bidean diran misiolari berriak neke aundirik gabe iritxi ditezke beren misio-tegira. Gu bizi geran alderdi onetan ordea besterik da, emen oso gaizki gabilitza, eta gutxiena uste degunean ezbearreko izugarrikerien bat gertatzea ezta bat ere arritzekoa izango. Ipar, ego ta eguzki-alde guzia komunistak arturik daukate oso-osorik; itzaldetik, eguzki-sartze aldetik daukagu bakarrik iges egiteko bidea.

[...]

Gero ta ozarrago dabilta komunista txar oiek, ezin-konta-ala atxilo (preso) artu dituzte, aien orde ez eros-sari izugarriak eskatzeko. Lenago ondasun aundien jabe ziran jendeak bakarrik artzen zituzten atxilo; orain ordea ain aberats ez tiranak ere berdin arrapatzen dituzte¹²⁷.

Dakigunez, Txinako gerra zibila 1927an hasi zen, Txinako Errepublika gobernatzan zuen Kuomintang edo Txinatar Alderdi Nazionalistaren eta Txinako Alderdi Komunistaren artean, baina tarteka irau zuen. 1945ean, Japonen kontrako gerra (1937-1945) amaituta, berriro gogortu zen gerra zibila, harik eta 1950ean komunistak nagusitu ziren arte. Aita Yurrek dioskunez, orduantxe hasi ziren agintariak misiolari guztiak Txinatik ataratzeko ahaleginak egiten:

“Ta laster asi ziran mixiolariak yazartzen, askatasuna kentzen, etxe barruetara sartzen, geroago edo lenago danak kanpora botatzeko Txina´tik.

¹²⁶ Zeruko Argia, 199, 1935-uzt.

¹²⁷ Soloeta-Dima, Fernando: “Txina´tik Berri Txarrak”, Zeruko Argia, 191, 1934-azaroa, 376. or.

Urte bat osoa eduki eben itxi-ta Soloeta Aba Yurre´tar Yulen Abagaz, Mixio bardiñean; baña gela ez bardiñetan. Kanpora ezin urtenaz, beti zaiñak atean; bazkaltzeko bakarrik batera etorri oi zirala.

Olan urte bat baño gehiago, gela barruan itxi-ta egon-da, biak batera bota ebezan indarrez.

Azkenak izan ziran, Txina´ko Kaputxino euskaldunen Mixiotik urtetan.

Larrañaga gotzai yaun gutziz Agurgarria ta beste mixiolariak, illabete batzu lenago yoanak ziran gura ta gura ez¹²⁸.

Baina, itxi diezaiozun Aita Soloetari berari kontatzen azken une horiek, Aita Yurre baino askozaz ere direktoagoa eta gordinagoa —ironikoa ere, sarri— da-eta:

“Comunico a V. R. que el último día del año que ha muerto [1953] penetró una multitud de escopeteros y garroteros en el chiquero donde hemos vivido estos últimos años y nos intimó la orden de emprender camino de la patria, orden que despreciamos y no quisimos cumplir; nos apuntaron con sus fusiles, y les descubrimos los pechos para que nos apuntaran más certeramente. Se lanzaron como fieras sobre nosotros y tal como estábamos en ropa de lecho sujetándonos pies y brazos nos pusieron en un carro congelado. El termómetro marcaba 25° ó más bajo cero, y por falta de abrigo, la sangre se paralizaba en las arterias. Unica protección nuestra estaba en la Divina Pastora, a la que nos encomendamos rezando en chino en voz clamorosa el Santo Rosario. Larga, larguísima la crónica de nuestra deportación. [...] Queremos quedarnos más cerca de China para poder volver a ella en la primera oportunidad que se presente. Los cristianos nos llaman y los sacerdotes chinos quieren nuestra ayuda¹²⁹.

¹²⁸ “Dima´ko Soloeta Aba Kaputxinoa”, 139-140. “Los últimos misioneros en salir de la misión fueron los de Kingyang y Sanshelipu el 31 de diciembre de 1953: los PP. Fernando Soloeta y Julián Barreneche[a], que opusieron una brava resistencia a dejar la misión y como buenos arratianos fueron obligados a salir casi a empellones” (Askoren artean: *La Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón, 1950-1975*, Curia Provincial de Capuchinos, Burlada, 1975, 455. or.).

¹²⁹ Padre Fernando de Dima: “Son expulsados los dos últimos misioneros de Pingliang”, *Verdad y Caridad*, 339, 1954-03-15, 69. or. Kontuan har bedi, Soloetak 73 urte zituela betetzear, lerrook idazten dituenenan. Interesgarria da garaitu horretan, P.E.L.-ek idatzitako “Gratitud Comunista” izeneko artikulua (*Verdad y Caridad*, 341, 1954-abril/mayo, 104. or.), bertan argi ere argi ikusten baita Aita Soloetaren portaera humanitarioa, baita komunistekin ere.

Txinako aldia amaitu egin da. 1954. urtean gaude, eta 26 urteko egotaldi luze, ixil eta emankorra iragana da Dimako euskal-argentinarrarentzat..., txinatar ere bihurturik (ikus 23. irudia). Izan ere, Argentinan emondako urteek bertako bihurtu bazuten, zer ez zen gertatuko kaputxinoaren baitan, Gansuko herritar xehe-xeheekin hogeita sei urtean bizi izan eta gero!



23. irudia. Aita Soloeta, Txinako txamanen antzera jantzita¹³⁰

9. Filipinetara bidean: azken geltokia

Txinatik egotzita, 1954ko otsailaren hiruan, San Blas egunez, Aita Yurre eta Aita Soloeta Manila aldera doaz. Soloetak handik zortzi egunera 73 urte bete zituen, baina adina gorabehera, Manilako misiolari kaputxinoekin —euskaldun batzuk tarteko— geratzea erabakitzen du. Badirudi, Filipinetara heldu baino lehenago, Hong-Kong kolonia britaniar ohian, pausaldi bat egin zuela Soloetak¹³¹.

¹³⁰ Esparza, Iñaki / Larrea, Angel: *Arratiako euskal idazle aitzindariak (in memoriam)*, Arratiako Udalak-BBK, Gertu inprimategia, Oñati, 2004, 276. or. [Kaputxinoen Artxibo Probintziala, Iruñea].

¹³¹ *Euskal Echea. La génesis de un sueño...*, 283. or.

Filipinetako egotaldiaren inguruko albiste bakarrenetarikoa bat, bertara heldu eta denbora laburrera ematen digu Soloetak. Gotzainari idazten dio, Txinan utzitako misioei buruzko berriak emateko. Izan ere, hiru gutun hartu dituzte, eta bertan Pingliang-eko kristau natiboen berri ematen da, kasu batzuetan berri gordin samarrak, baina badirudi maisu onak izan zituztela: “También ellos, siguiendo los malos ejemplos del arratiano [Aita Julian de Yurre] y del argentino [bere buruaz ari da] se han constituido en resistencia pasiva”¹³². Baina, interesgarria da, bestalde, euren buruaz esaten duena:

“Los tres exmisioneros refugiados que nos encontramos aquí somos tres ilustres desconocidos, pobres en lo temporal y sin ninguna representación dentro de la jerarquía eclesiástica; así de altas esferas han de venir las oportunas iniciativas”¹³³.

Artikuluaren amaieran, Jainkoari berari zuzentzen dio Soloetak bere eskaria. Badaki zer pairatzen ari diren Gansu probintziako misioetako kristauak, eta ezin du ulertu Jainkoaren pasibotasuna -fede krisialdi bat?-. Azken lerroetako ironia -etsipena?, ilusio eza?, distantzia?...- ere, azpimarragarria da:

“Nos están imitando, es cierto, y con un heroísmo inefable, y quizás nos tengan que imitar en la violenta y bárbara manera con que fuimos deportados. Y ello sería, juzgando las cosas con criterio humano, una gravísima calamidad para aquella hermosa cristiandad. ¿Pero, qué haces, Dios Todopoderoso, que no vienes en nuestro socorro? ¿en quién confiaremos, si Tú no nos favoreces?

Saludos a todos los religiosos de la Provincia y exmisioneros nuestros, y quiera bendecir al más inútil de sus servidores”¹³⁴.

Handik lau urtera, 1958. urtean, Buenos Airesko Euskal Echeak bere 50. urteurrena ospatzen du. Irailaren 13an hasi ziren ekitaldiak, eta eurotan beren-beregi gogoratu zituzten hasierako ikasle eta irakasleak. Mundu zabaletik jende askok egin zuen bat Euskal Echearekin urrezko eztei horietan. Mezu esanguratsu bat Filipinetatik heldu zen Argentinara, Manilatik hain zuzen ere:

“Al mediodía se sirvió un almuerzo que reunió a muchos ex alumnos; algunos, de los primeros de los años 1908 y 1909, [...]. Entre las adhesiones que se leyeron al final de almuerzo, merecieron entusiastas aplausos la del padre Fernando de Dima, desde Manila y la que se recibió de la ciudad del Vaticano con la

¹³² Fernando de Dima: “Como en la época de las persecuciones”, *Verdad y Caridad*, 343, 1954-07-15, 195. or.

¹³³ *Ibidem*, 195. or.

¹³⁴ *Ibidem*, 195. or.

Bendición Apostólica que fué escuchada en pie por todos los comensales¹³⁵.



24. irudia. Aita Soloeta-Dimaren azken argazkietariko bat¹³⁶

Euskal-Echea en su Cincuentenario urtekari-liburuan “El hombre en Euskal-Echea” izeneko atal txo bat dago (24-30. or.), non kaputxino zenbaiten berri ematen den (zuzendariak, irakasleak...). Azpimarratu behar da, lehenengo biografiatxoa Aita Fernandorena dela, eta bertan dimoztarraren argazki deigarri bat agertzen dela (ikus 24. irudia). Zaharkituta ikusten dugu, behinola, gizaseme kementsu eta zala izan zena. Jantzkerak eta sorbaldeetan duen mantak dioskute leku hotz baten ataratakoa dela. Txinan emandako azken uneetan ataratakoa izan daiteke, eskumaldean karaktere txinatar batzuk ikusten dira-eta. “P. Fernando de Dima” izeneko testu laburrean, argi erakutsi zuten Llavallol-eko anaia kaputxinoek ez zeukatela ahaztuta, handik urrun jaio, eta handik urrun ere urrun, bere bizitzako azken urteak ematen ari zen bizkaitar adorea:

“El P. Fernando de Dima estuvo en los comienzos de EUSKAL-ECHEA. Tenía un corazón grande de patriarca y un espíritu emprendedor y aventurero. Su labor docente en EUSKAL-ECHEA, que abarcó 14 años (1910-1924), tuvo esa señoría y esa prestancia de una persona cabal y enteriza. Para sus alumnos fué el *Padre Jauna*, apodo que le quedó, sin duda, de sus clases de lengua vasca, y quizás esa palabra *señor* le defina enteramente. [...]

¹³⁵ Euskal Echea: *Euskal-Echea en su Cincuentenario*, Urtekaria, Llavallol, 1958, 54. or.

¹³⁶ *Ibidem*, 24. or.

Desde su retiro de Filipinas se ha asociado al Cincuentenario de E. Echea¹³⁷.

Hamar urte luze eman zituen Soloetak Filipinetan —desconocido, pobre y sin ninguna representación dentro de la jerarquía eclesiástica?—, eta bertan, Tagaytay¹³⁸ hirian, hil zen, 1964ko ekainaren 21ean, 83 urteko zela¹³⁹.



25. irudia. Kaputxinoen seminarioa Tagaytay-n¹⁴⁰

Udako solstizioa ospatzen den egun horretan, urtero gogoratzen dute hango anaia kaputxinoek handik milaka kilometrotara sortu zen euskaldun misiolaria: *Mention the name of the brother whose death*

¹³⁷ *Ibidem*, 24. or.

¹³⁸ Tagaytay hiria Filipinetako Cavite probintzian dago, Manilatik 55 kilometrorra. Tamalez, ez daukagu informazio askorik Soloetaren bizitzako azken urteoz. Izan ere, Bienvenido de Arbeizak bere *Reseña Histórica de los Capuchinos en Filipinas* liburuan dioenez: “Nuestra Misión Capuchina de Filipinas, por desgracia, es una de las menos conocidas de la Orden” (“A guisa de prólogo”, 9. or.). Damurik, bere liburuan, 1952. urtera arteko kronika baino ez digu ematen: “Era mi plan escribir la Reseña Histórica hasta el año 1952, fecha en que salí de la Misión de Filipinas” (369. or.).

¹³⁹ Llavallol-eko anaiek samurtasun handiz agurtu zuten 62-64 urteetako urtekarian. Azken lerroak baino ez dakartzaguz hona: “Por fin, y después de haber sido sometido a un *juicio popular*, para obligar a los cristianos a que pidieran su expulsión, fué sacado de noche de su residencia y puesto en un vehículo desvencijado en el cual atravesó de nuevo toda China hasta Hong-Kong. Tenía entonces setenta y dos años. Su salud, siempre había sido de robusta complexión, estaba ya minada por los sufrimientos y el paludismo que había contraído en la cárcel, pero su espíritu se conservó siempre, y hasta el día de su muerte, ocurrida el 21 de junio de 1964, jovial y despierto, optimista hasta el punto de negarse a volver a su patria esperando a las puertas de China la oportunidad de volver a su amada misión” (“Fundadores de Euskal Echea. P. Fernando de Dima”, *Euskal-Echea*, Memoria 1962-64, Llavallol, 1964).

¹⁴⁰ Soloeta bertan zegoela inauguratu zen seminarioa (1958-02-05): “Breve Historia de los Capuchinos en La Islas Filipinas”, <https://sites.google.com/site/silbandoenelvientto/Home/filipinas>.

anniversary is remembered at the last petition of the Evening Prayer. June 5, Pedro Joaquín M^a de Aldaz; 9, Damaso M^a de Biurrun; 18, José M^a de Tirapu; 21, Fernando de Dima...¹⁴¹.

Duela 50 urte joan zen mundutik Saturnino Soloeta Iturrondobeitia, elizan Dimako Fernando zena. *Buruz azkarra, argia ta sakona, gutxi lez. Eta biotzez oraiñik aundiagoa eta goragoa zela zioskun, dimoztarra hain ondo ezagutu zuen Aita Julian Yurrek. Haren heriotzaren urteurren esanguratsu honetan, lerro xumeon bitartez, Dimako Bargondia bere umetako habitik mundu zabalera hegaldatu zen Soloeta-Dimari omen txiki bat egin gura izan diogu. Ez zuen denbora luzea eman jaio zen habian, baina euskal lumajea distiratsu ere distiratsu eraman zuen azken hatsa eman arte!*

10. Bibliografia

10.1. Aita Soloeta-Dima: liburuak

- (1912). *Curso Primero del Idioma Basko*. Buenos Aires: Tip. de La Baskonia. 192 orrialde.
- (1912-1914). *Curso Segundo del Idioma Basko [Lecciones para una Gramática Bascongada, La Baskonia aldizkaria, 685-687, 690-693, 695, 739, 741, 744, 747 (1912-urria/1914-ekaina), 12 atal]*¹⁴².
- (1913a). *Le Petit Basque. Cours élémentaire de Grammaire Basque. Dialecte Labourdin. Par le R.P. Soloeta Dima professeur de langue basque au collège "Euskal-Echea"*. Buenos Aires: Imp. Vincenty, Bossio & Cia. 150 orrialde.
- (1913b). *Conjugación Sintética del Verbo Basko comenzado por consonante*, Buenos Aires: Imp. La Euskaria. 58 orrialde.
- (1914-1916). *Lecciones para una Gramática del Euzkera Bizkaino, Euskal Erria (Montevideo), 105, 107, 109, 111, 115, 118, 120, 123, 125, 146, 148, 150, 152, 156, 159, 162, 167, 171 (1914-08-02 / 1916-01-10), 18 atal.*
- (1922). *Ensayo de la unificación de Dialectos Baskos*. Buenos Aires: Tip. de La Baskonia. 173 orrialde.
- [1934]. *Mi cautiverio bajo el Dragón Rojo (Dramático relato de un Misionero Argentino)*. Buenos Aires: PP. Capuchinos, Nueva Pompeya. 122 orrialde. // *Lapurren menpean...* [P. Iraizozen itzulpena], *Zeruko Argia*, 199-211 (1935/03-1936/07). // *Lapurren menpean* [Ainhoa Beloaren edizioa], *Armiarma*,

<http://klasikoak.armiarma.com/pdf/IraizozLapurren.pdf>.

10.2. Aita Soloeta-Dima: artikulua¹⁴³

- (1909-1920). “[Cartas] 1909-1920 [a] Julio de Urquijo, San Juan de Luz [Manuscrito] / Fr. Fernando Soloeta de Dima”. Donostia: Koldo Mitxelena Liburutegia, (<http://oaiprod1.gipuzkoa.net:8080/handle/10690/3898>).
- (1910). “Añibarro traductor del *Guero*”, *RIEV* 4: 592-594.
- (1911a). “EUSKALETXEA: Discurso pronunciado por el R. P. Soloeta, en la apertura de las clases baskongadas de los institutos de *Euskal-Echea*” (I). *La Baskonia* 632, 1911-04-20: 325-326.
- (1911b). “EUSKALETXEA...” (II). *La Baskonia* 633, 1911-04-30: 341-343.
- (1911c). “EUSKALETXEA...” (III). *La Baskonia* 634, 1911-05-10: 360-362.
- (1911d). “Soloeta’tarr Abak Euzkal-Etxian egindako itzekisuna”. *La Baskonia* 657, 1911-12-30: 136-137.
- (1912a). “El baskuence en Euskal-Echea”. *La Euskaria* 277, 1912-01-13: 1.
- (1912b). “El baskuence en Euskal-Echea”. *La Euskaria* 279, 1912-01-27: 1.
- (1912c). “*Euskal-Echea*: apertura de las escuelas”. *La Baskonia* 661, 1912-02-10: 203-204.
- (1912d). “La inauguración de Euskal-Echea”. *Euskal Erria (Montevideo)* 17, 1912-11-24: 1-2.
- (1913). “Al señor don Ignacio Echaide”. *Euskal Erria (Montevideo)* 68, 1913-11-16: 2.
- (1916). “Carta abierta al Sr. Dr. D. Federico de Belaustegigoitia”, *Euskal Erria (Montevideo)* 197, 1916-09-30: 330-332.
- (1918). “El Baskuence es el idioma primitivo”. *La Baskonia [Bodas de Plata; ale monografikoa]* 901, 1918-10-10: 31-32.
- (1931). “Muerte de un benemérito misionero de Bilbao, en China”. *Euzkadi*, 1931-04-28: 5.
- (1934). “Txina’tik Berri Txarrak”. *Zeruko Argia* 191: 376.
- (1953a). “Cartas del P. Julián y P. Fernando desde China”. *Verdad y Caridad*, 1953-05-15: 143-146 [Ezin izan dugu kontsultatu].
- (1953b). “Emocionante carta del Padre Dima”. *Verdad y Caridad*, 1953-07-15: 203 [Ezin izan dugu kontsultatu].
- (1954a). “Son expulsados los dos últimos misioneros de Pingliang”. *Verdad y Caridad* 339, 1954-03-15: 69.

¹⁴¹ Kapatirang Capuchino ng Pilipinas: NECROLOGY 2013, <https://sites.google.com/site/capuchinphilippineprovince/capuchin-prayers/necrology-2013>.

¹⁴² *Lecciones para una Gramática Baskongada. Una Gramática Crítica, Euskal Erria (Montevideo)*, 19-22, 29, 32-34 (1912-12-08 / 1913-03-23), 8 atal.

¹⁴³ Artikulugintzari dagokionez, orokorrean, lan honetan aipatutako bibliografia baino ez da ematen.

— (1954b). “Como en la época de las persecuciones”. *Verdad y Caridad* 343, 1954-07-15: 194-195.

10.3. Bibliografía orokorra

- A. (1914). “Bibliografía”. *Euskal-Erria* 70-71: 470-471.
- Alvarez Gila, Oscar / Iriani, Marcelino (2005). “Euskal Echea. Un intento étnico para preservar lo distinto”, *Sancho El Sabio* 22: 11-44.
- Arbeiza, Bienvenido de (1969): *Reseña Histórica de los Capuchinos en Filipinas, 1886-1952*. Pamplona: PP. Capuchinos.
- Arbizuko, Pelis A. (1933). “Txina’tik”. *Zeruko Argia* 174: 100-101.
- Azkue, R. M^a (1925). “Txukuneria”. *Euskera* VI: [3]-21.
- Batzuen artean (1912). “Euskal-Echea” [Inaugurazioa. Ale monografikoa], *La Baskonia* 688, 1912-11-10.
- (1934). “Pingliang. Libération du P. Soloeta-Dima”, Table de Matières contenues dans le *Bulletin Catholique de Pékin*, 21^{ème} Année, 77, in *Le Bulletin Catholique de Pékin. Années 1913-1948*, Imprimerie des Lazaristes du Pei-T’ang, Pékin (77.http://famvin.org/fr/Congreg_Mission).
- (1975). *La Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón 1950-1975*. Burlada: Curia Provincial de Capuchinos.
- (1981): *Estadística de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón, 1900-1979*. Pamplona: Curia Provincial de Capuchinos.
- (1999). *Vida y memoria de los hermanos capuchinos en Argentina I-II*, Buenos Aires.
- Baylac, Natividad (1955). *Euskal Echea. Su obra a través de 50 años, 1904-1954*. Buenos Aires.
- Bengochea, J. (1911). “Euskal Echea”. *Euskal-Erria* LXIV: 166-167.
- Bidador, Joxemiel (1999). “Txinako idazle euskaldunak”. *Berria-Nafarkaria*, 1999-08-27: 6. (http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/nafarkaria/1999-08-27.pdf).
- Boletín Oficial de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón (1954). Pamplona: 203-204.
- Cabodevilla, Miguel Angel. “Alejandro Labaka, construir un puente” [*La Ultramontesa*, Labaka misiolariak Pingliang-en idatzitako orri solteak] (<http://www.alejandroeines.org>).
- Cervatos, Paulino de (1922). *Notas Historiográficas del Convento de San Francisco de León*. Madrid: El Mensajero Seráfico // <http://bibliotecadigital.jcyl.es>.
- Corresponsal El* (1913). “En Euskal Echea. El gran festival del domingo pasado”. *Euskal Erria* (Montevideo) 59, 1913-09-14: 2.

- Egia, Juan de (1911). “En Euskal-Echea”. *La Baskonia* 649, 1911-10-10: 4.
- Erredakzioa (1911). “Euskal-Echea”. *La Baskonia* 655, 1911-12-10: 104.
- (1928a). “Beste misiolari bat Txina’ra”. *Zeruko Argia* 114: 226.
- (1928b). “Aita Dima Txinara bidean”. *Zeruko Argia* 116: 311.
- (1933a). “Kaputxino bat Txina’ko lurretan billaketari”. *Zeruko Argia* 171: 42-44 [1933ko urtarrilaren 26ko *L’Ossevatore Romano*-tik hartuta].
- (1933b). “Misioak. Pinglian’go gure misioa”. *Zeruko Argia* 172: 68-70.
- Esparza, Iñaki / Larrea, Angel (2004). *Arratiako euskal idazle aitzindariak (in memoriam)*. Oñati: Arratiako Udalak / BBK.
- Euskal Echea: *Anuarios* (<http://www.euskalechea.esc.edu.ar/llavallol/anuarios>).
- Ezkerro, Mikel: “Promotores del euskara en Argentina”, EuskoSare. Red de la Comunidad Vasca Global (<http://www.euskosare.org/blogak/argentinkoak>).
- Friars Minor Capuchin (Philippine Province of Our Lady of Lourdes) (2013): <https://sites.google.com/site/capuchinphilippineprovince/capuchin-prayers/necrology-2013>.
- Garexko Bartolome A. (1934). “Gure misiotegiko estutasunak. Aita Fernando Dima’koa nola arrapatu zuten”. *Zeruko Argia* 182: 229-231.
- Gómez López, Ricardo (2013). “La gramática vasca en la época del *Euskal Pizkundera*: el Curso primero del idioma basko (1912) de Soloeta-Dima”, *Euskara-Erromantze Linguistikaren IV. Jardunaldiak* (2013/11/29), Deustuko Unibertsitatea, Bilbao (<http://www.slideshare.net/FiloBlogia/gmez-2013-jlvrsoloeta-dima>).
- Gulina, Rafael de (1934). “Desde el Kansu”. *Verdad y Caridad* 128, 1934-11-15: 341-344.
- (1944). *Kansu la Misión más pobre de China*. Buenos Aires: Convento Nueva Pompeya.
- H. V. B. [Alzola, Nikolas] (1964). “Fray Fernando Soloeta de Dima, O.M.C.”. *BRSVAP*, año 20, cuad. 3: 323-324.
- Hernández, Domingo (1998). *Centenario de la Orden Capuchina en Argentina*, Buenos Aires.
- Ikaskia* (1913). “Gramática Baska”. *La Baskonia* 726, 1913-11-30: 90.
- Iriani Zalakain, Marcelino / Alvarez Gila, Oscar (2003). *Euskal Echea. La génesis de un sueño (1899-1950): Llavallol*. Gasteiz: E. Jaurlaritzia.
- Joannateguy, Basile / Bengoa, Eusebio (1995). *Txinako Berriak* [Arantza Elordietaren edizioa]. Bilbo: Ibaizabal.

- Laurak Bat (1919): *Visita de la Escuela Naval Sota y Aznar. Homenaje de Laurak Bat*. Buenos Aires: S. de Amorrortu [Aita Soloetaren hitzaldia, 13-15].
- (1921a). “Naskaldija. Por nuestros muertos”. *Laurak Bat*, 1921-dic.: 80.
- (1921b). “Naskaldija. Peregrinación Vasca (Virgen de Luján)”. *Laurak Bat*, 1921-dic.: 82.
- Legarreta, Josu [zuz.] (2003): *Documentos: Revista Eusko-Americana La Baskonia (1893-1943)*. Urazandi Bilduma, 0 tomoa. Gasteiz: E. Jaurlaritzza.
- (2007). *Hemeroteca de la Diáspora Vasca*. Urazandi Bilduma, 01. Gasteiz: E. Jaurlaritzza. *Urazandi digitala*: <http://urazandi.euskaletxeak.net>.
- Lexicon Capuccinum. <http://sammlungen.ulb.unimuenster.de>.
- Madariaga, A. de (1922). “Ensayo de la unificación de Dialectos Vascos”. *Aranzazu*, 1922 II: 208-209.
- Omabeitia'tar Karmer (1913). “Conjugación sintética del verbo comenzado por consonante”. *Euskal Erria* (Montevideo) 71, 1913-12-07: 1-2.
- Onaindia, Santiago (1975). “Saturnino Soloeta Iturriondobeitia (1881-1964)”, in *Euskal Literatura IV*. Bilbo. 56-60.
- Otaño, Pedro M^a (1912). “*Euskal-Echea*-ko euskaldunak”. *La Baskonia* 688, 1912-11-10: 81.
- P.E.L. (1954). “Gratitud Comunista”. *Verdad y Caridad* 341: 104.
- Pérez Aguirre, Casimiro J. J. / Pérez de Villarreal, Vidal (2001). *Escritores de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón*. Pamplona: Curia Provincial de Capuchinos.
- Soloeta, Hilario (1913). “Al R. P. Soloeta desde su querida Arratia”. *La Euskaria* 313, 1912-09-23: 1 // *Euskal Erria* (Montevideo) 24, 1913-01-12: 1.
- Uchagakoa (1914). “Figuras euskarianas: El R. P. Soloeta”. *La Baskonia* 735, 1914-02-28: 228-229.
- Uriarte, José R. (1917). *Los baskos en la nación argentina*. B. Aires: Ed. La Baskonia.
- Urkijo, Julio (1913). “Bibliografía: *Curso primero del Idioma Basko...*”. *RIEV* VII: 286-287.
- (1914-1917). “Bibliografía: *Conjugación Sintética del Verbo Vasco...*”. *RIEV* VIII: 176-177.
- (1922). “Bibliografía: *Ensayo de la unificación de dialectos baskos...*”. *RIEV* XIII: 666.
- Vinson, Julien (1914). “Conjugación sintética...”. *Revue de linguistique et de philologie comparée*. *RPhC* XLVII: 57-59.
- X.X. (1913a). “Curso Primero del Idioma Basko, por el R. P. Padre Soloeta”. *La Euskaria* 318, 1912-11-02: 1.
- (1913b). “Cómo se enseña el bascuense en la Euskal-Echea de B. Aires”. *Euskal Erria* (Montevideo) 24, 1913-01-12: 2-3.
- (1913c). “Programa de la asignatura baskongada. Primer año”. *Euskal Erria* (Montevideo) 26, 1913-01-26: 2.
- (1914). “El patriotismo basko de los profesores de Euskal-Echea”. *La Baskonia* 764, 1914-12-20: 121 // *Euskal Erria* (Montevideo) 126, 1914-12-27: 285-286.
- Yurre'tar Julian [Barrenetxea Uribasterra, Nikolas] (1929). “Txinatik”. *Zeruko Argia* 122: 28-29.
- (1964). “Dima'ko Soloeta Aba Kaputxinoa”. *Egan* 1/6: 134-140.
- (1985). *Mao Tse-Tung. 1936'tik 1954'ra kondaira*. Donostia: Lorea irarkola.